

EGIA ALTERNATIBOA:
«Komunikabideen aurkako
gerran» da Donald Trump > 8

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA
«America first», «España adelante»...
Euskal Herria? **RAMON SOLA > 11**

2017ko urtarrilaren 28a | XI. urtea • 503. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



MEMORIAREN ATEAK ITXI AURRETIK

DURANGO 1936 ELKARTEA TESTIGANTZAK BILTZEN HASI ZEN 2007AN, URTE ASKOAN ISILDUAK IZANDAKO AHOTSAK EGUN ITZALTZEN ARI ZIRELA IKUSITA. KASIK 80 TESTIGANTZA ETA ZORTZIEHUN BIDEOTIK GORA DITUEN IKUS-ENTZUNEZKO BANKUA AURKEZTU DUTE ORAIN, BORONDATEZ EGINDAKO BILKETAREN EMAITZA. WEBGUNEAK OSATZEN JOATEA DA ASMOA, ARTEAN MIN ASKO DAGOELAKO KONTATU GABE. > 12 Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS



Adam Geveri, HDPko diputatua:
«Beldurpeko bakeari ere, ez» 04

Donald Trump: Gezurra egiaren
soinuan 08

Isildutako minak kabitze
moduko ikus-entzunezko bankua
abiatu dute Durangon 12


Gaztaroko artritis idiopatikoa
dutenei laguntzeko gida 18

E.lkarrizketa: Unai Viana 22

Lekaleak, hazietatik hasi 26

Infraganti: Brenan Duarte 28

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** Politika publikoak
eta zeruertzaren eskaneatzea

10 **Saioa Aginako:** Bizitza begien
aurretik

11 **Ramon Sola:** «Amerika first»,
«España adelante»... Euskal
Herria?

17 **EXPRAI**

19 **Antton Izagirre:** Pentsatu,
sentitu, ekin

19 **Miren Azkarate:** Negarra ez
dadila honengatik gehiago izan

20 **Beñat Gaztelumendi:**
Alfabetoak

21 **Amaia Nausia:** Osasunik gabe
bihotza osasuntsuago

30 **Arantza Diaz de Ilarraza:**
Hizkuntza prozesamenduaren
teknikaz balia gaitezke



{ datorrena } Iñaki Soto

Politika publikoak eta zeruertzaren eskaneatzea

zenburuak deitu zuen nire arreta. Autolaguntza enpresarialaren erretorika berrian honelako kontzeptuak ohikoak baldin badira ere, “*horizon scanning*” terminoak intuitiboki interesgarria den zerbait adierazten zuela iruditu zitzaidan. Jatorriak ere sinisgarritasuna eman zion, Sabin Azua buru duen B+I Strategy enpresak urtero argitaratzen duen “Estrategia” liburuaren zenbaki berriaren aurrerapena den artikululu batean ikusi bainuen lehenengoz [goo.gl/ROUqfm]. Industriadako aholkularitzara dedikatzen den enpresa da. Apur bat paradoxikoa bada, izan ere, industriaren sustapenera dedikatzen den enpresa gihartsua da. Beraiek, ordea, aholkularitza lana egiten dute, “industria” bihurtzeko bidean den jardura enpresariala, zalantzarik gabe; sustatu nahi den industriaren ohiko adieraren aski kontrakoa, ordea. Edonola ere, aipatu liburu sorta oso interesgarria da, enpresa munduan nazioartean dauden joerak eta eztabaidak biltzen baititu. Atzerrirako begirada izatetik harago, bildumaren ikuspuntua eta jatorria eskal industriari lotuta daude.

Otsail hasieran Bilbon aurkeztuko dute aurtengo liburu zuria, bildumako seigarrena, Bizkaiko *establishment*-a eta Euskal Herriko hainbat *outsider* biltzen dituen urteroko ekitaldian. Zenbait enpresarik eta erakundeetako ordezkari gehienek “Euskal Herria” terminoa entzuten duten urteko une bakarrik bilkura hori dela uste dut. Azuatarrak konplexurik gabeko abertzaleak dira-eta (Moulines parafraseatuz, estutuz gero, are independentista ere badirela esango nuke). Horregatik bakarrik bada ere, interesgarria da. Aldi berean, nire ustez, XXI. mendeko sozialdemokraziaren ordezkariak ere badira (liburuaren gaiak ikusita, “sozialdemokrazia 2.0” ere esan dakiok). XXI. mendeko sozialistentzat ikuspuntu hori interesgarria da, egungo politikagintzan eta ekonomian indarra duen tradizio berria delako. Zenbait auzitan arerio izango dira, jakina, beste zenbaitean agertokiak iradokiko dizkigute, eta, ziur asko, noizbait beraiekin aliantzak ere egin beharko dira.

«HORIZON SCANNING», INTELIGENTZIAREN RADARRA

“Zeruertzaren eskaneatzea” terminoa mende honetako lehendabiziko hamarkadan hasi zen hedatzen, nola ez,

ingelesez. Orokorrean, tresna gisa definitzen dute, aurrera begira joerak iradokitzen dituzten praktikak eta ideiak monitorizatuz ekinbideak hautatzen lagunduko diguten ezagutzen eta praktiken multzo gisa. Adibidez, disruptiboak izango diren teknologiak edo aldaketa kulturalak aurreikusteko balia daiteke. B+I Strategy enpresakoak “arte” gisa izendatzera ere heltzen dira, agian gehiegi dena. Hein handi batean enpresa mundura bideratuta egon arren, inteligentzia jardura da, alegia, honetan dabiltzanak “espioitzara” dedikatzen dira, nolabait esateko.

Intelligentziaren adiera hori Las Indias kooperatibakoen eskutik ezagutu nuen, egoitza nagusia Bilbon kokatua duen eta hacker-etikaren ikuspuntutik abiatzen den beste talde interesgarri bat [goo.gl/2BEcuV]. “Resiliencia!” buletinean, adibidez, joerak ezagutzeko tresna oso interesgarria landu zuten. Noizbait gurekin kolaboratu dute [adibidez, goo.gl/ADodZl]. Beren jatorri libertario eta ko-

«Horizon scanning»-a aurrera begira joerak iradokitzen dituzten praktikak eta ideiak monitorizatuz ekinbideak hautatzen lagunduko diguten ezagutzen eta praktiken multzo gisa definitzen dute

munitaristek bereziki interesgarri bihurtzen dute taldea. Aurrekoekin kontrajarriz, XXI. mendeko anarkismotik gertu dabilta. Aurrekoekin bezala, kritikoki bada ere, beren ibilbidea ezagutzea eta beren ikuspuntuak kontuan hartzea beharrezkoa iruditzen zait.

Hari horretatik tiraka, zenbait gobernu zeruertzaren eskaneatzera dedikatutako sailak antolatu dituztela ikusi dut. Britainia Handian, adibidez, Horizon Scanner Centre sortu zuten 2004an, politika publikoetan esperimintatu eta aurreratzeko funtzioarekin. Gurera ekarrita, munizipalismoan, urbanismoan, demografian, komertzioan, teknologietan edo parte hartze politiketan munduan dauden joerak aurreikusi eta praktikara ekartzeko aukera bat litzateke. Zeruertzak gure anbizioen muga erakusten baitu. Eskaneatzea, besteak beste, anbizioa handitzea, zeruertz zabaltzeko, metodo egokia iruditzen zait.

«Ez dugu gerrarik nahi, ezta beldurraren ondorio izango den bakerik ere»

Politikarekin lotutako zeregin berriak hartzeko utzi zuen Adem Geverik Azadi Hereketa mugimendu kurduaren idazkaritza nagusia: bere herria zapaltzen duen errepresioa Turkiako Parlamentuan egindako lanaren bitartez aldatzen saiatzea egokitu zitzaion 1978an jaiotako irakasleari. Turkiako Estatuak ipinitako oztopoen gainera lan hori fruituak ematen hasita zen, baina, orain urte eta erdi, bake prozesua hankaz gora joan eta egotira zeharo aldatu zen. Kurduen eta Turkiako Estatuaren arteko elkarrikerketaren prozesua bizirik zenean ere, asko kostatu zitzaion Ademi turkierazko abizena, Özcaner, kendu eta berea, Geveri, jartzea. Bi urte behar izan zituen horretarako. Geveri abizenak Gever herrikoa dela adierazten du, turkiarrek Yuksekova deitzen dioten hiri kurdukoa. «Gaur egun abizena aldatu nahiko banu, ez lukete onartuko», jakinarazi dio Geverik GAUR8ri.

Zein da Azadi Hereketa mugimenduaren helburua?
Kurdistanek dituen arazoei erantzuteko sortu zen 2012an, gizarte ekimen moduan. Turkiako Estatuak ez zetorren bat gure helburuekin, ezta “Kurdistan” hitza erabiltzearekin ere. Horregatik ez gaude ofizialki onartuta. 2014an gizarte mugimendu bihurtu ginen, alderdi politiko bat sortzeko ezinbesteko lehen urrats gisa. Azkenean alderdi bat sortzea erabakiko bagenu, gure helburua litzateke Kurdistan demokratiko bat lortzea, kutsu islamikoko Kurdistan bat, nortasun agiri kurdu bat izatea politika egiteko nahikoa izango den herrialdea. Eta hori, noski, “Kurdistan” hitza erabilita.

ADEM GEVERI

AZADI HEREKETA MUGIMENDUKO KIDEA ETA HDP ALDERDIKO DIPUTATUA

Adem Geveri HDP Herrien Alderdi Demokratikoko diputatua da Turkiako Parlamentuan, Van probintziakoa. Gainera, Azadi Hereketa (Askapen Mugimendua, kurdueraz) giza mugimenduko ordezkaria da, tradizio islamikoaren alde lpar Kurdistanen lan egiten duen mugimendukoa, alegia. Oraingoz HDPekin bat egiten du Azadi Hereketak.

Miguel Fernandez Ibañez



Kurdistan independente eta musulman bat nahi dugu.
Kurduontzat marra gorria da hori. Nazionalistak gara eta islam printzipio bat da. Geure askatasuna exijitzen dugu eta herriarrak animatzen ditugu gauza bera eskatzera, nahiz eta une honetan ez den posible. Kurduok geure etorkizuna erabakitzeko eskubidea dugu. Autonomia edo independentzia izan daiteke irtenbidea. Bi ideia horiek dute sostengua. Kontu hori oso garrantzitsua da guretzat. Alderdia sortzen badugu aztertu beharko dugu.

Autonomia onartzeko prest al zaudete independentzia lortzea ezinezkotzat joa?
Gure herria ezagutzera ematea nahi dugu, baina ez da ezinbestekoa guk nahi dugun hori nahi eta nahi ez politikoki adieraztea. Uneotan politikan sartuta gaude, baina gure oinarria herriaren eskariak dira. Turkiarrek esaten digute independentzia ez zaigula komeni, kalte egingo digula, eta guk erantzuten diegu guri uzteko erabakia hartzen. Independentzia kaltegarri izango balitz, inozoak ez garenez, federazio baten aukera lortzen ahalegin gintezke. Turkiar baten eta kurdu baten nortasun agiriaren artean alderik izango ez balitz, giza eskubideak errespetatuko balira, ez genuke independentziaren beharrik izango askatasuna lortzeko. Kasu horretan autonomia nahi-koa izango litzateke.

Turkiar herria konbentzitu beharko duzue lehenik. HDP alderdiak gauza bera lortu nahi du, baina zenbait kurduri ez zaie ondo iruditzen bide hori, turkiartzen ari direlakoan.
Kurduon artean ere joera politiko ugari daude. HDP alderdia sortu aurretik ere askotan eztabaidatu izan dugu zein ote den bide demokratiko egokiena gure eskubideen onarpena lortzeko: hizkuntza, erabakitzeko eskubidea, geure kultura bizi eta errespetatzeko aukera... Horiek gure gutxieneko eskubideak dira eta horien alde borrokatzeko prest gaude, urtebetez edo ho-


gei urtez, behar izanez gero. PKK Kurdistango Langileen Alderdiaren eta Turkiako Estatuaren arteko elkarrizketa prozesuarekin bat egin genuen eta bertan ez da inoiz esan independentzia helburua zenik. Pragmatismo osoz hartu genuen erabakia, bakearekin emaitza hobeak lortuko genituelakoan. Ez dugu gerrarik nahi, ezta beldurraren ondorio izango den bakerik ere. Tamalez, elkarrizketa prozesua 2015ean hil zen eta 1990eko hamarkadara itzultzen ari gara.

Puntu horretaraino iritsiko al dira gauzak?

Ezin dugu baztertu Estatuak berriz talde paramilitarrak abian jartzea kaleko borrokari aurre egiteko. AKP alderdiak [islamista, Erdogan presidentearena] Kurdistanen eraiki zen guztia suntsitu du. 1990eko hamarkadan suntsiketa lan hori ezkutu egiten zuen Gobernuak, baina gaur egun disimulurik gabe egiten du, guztiek ikusteko moduan: hiriak oso-osorik txikitzen ditu, ehunka mila herriar kaltetuz. 1990eko hamarkadan geure alderdiak debekatu egiten zituen eta independente moduan aurkeztu beharra genuen. Tamalez, une honetan Estatuak gu espetxeratzen ari da, geure erakundeak ixten. Demokraziaren erabateko porrota da.

AKP alderdiaren inguruko hedabideek, baita Masud Barzani Hego Kurdistango presidentearen aldekoek ere, HDPren barruan zatiketa arriskua ikusten dute.

Zatiketa ikusi egin nahi dutela esango nuke. Guk Estatuarekin dugu arazoa. Geure eskubideen artean dago alderdi politiko bat sortzearena. Azadi Hereketan uste dugu etorkizunean horren beharra izan dezakegula, baina uneotan HDPekin egiten dugu bat: guk esan, pentsatu eta eskatzen ditugun gauzen inguruan ez dago indar demokratikoagorik. HDP sortu gabe egongo balitz, kurduok autoritarismoaren aurkako jarrera hartzen duen alderdiarekin egingo genuke bat. Garai batean AKPri berari horre-



Argazkiak: Miguel FERNÁNDEZ IBAÑEZ



«Turkiarrek esaten digute independentzia ez zaigula komeni, kalte egingo digula, eta guk erantzuten diegu erabakia hartzen guri uzteko»

gatik eman zioten kurdu askok sostengua.

Iazko uztailan egin zen Estatu kolpe ahaleginaren ondoren, aurrena Fethullah Gulenen aldekoak erori ziren. Ondoren, zuek. Eta orain badirudi kemalisten aurka hasi direla agintariak. Azkenean kemalismoa bera kalean ikusiko al dugu, protesta egiten?

Horiek ez dira altxatuko. Turkiako demokrazia mehatxupean dago eta HDPTik kanpo ez da ikusten Gobernuaren aurka ausardiaz altxatuko den alderdirik.

Zerorri Gever hirikoa zara, PKK-k indar handia duen hirikoa, une honetan borrokek suntsituta daukatena. PKK-k bertan zuen babesa galdu egin al du?

PKK-koek egin dituzten lubakiak [herri kurduak babestu nahian] eta Estatuak emandako erantzuna oso gogor salatu dituzte herritarrek. Kritika hori sortzen da geurea herri demokratikoa delako. Hala ere, ez dirudi orain arte bere sostengua eman digun herriak gurekiko bere jarrera aldatu duenik. Aldiz, Estatuaren jarrera oso zorrotz salatu du. Gobernuak mespretxatu egin du herriaren babesa, Armada indartzen zuen bitartean. Kurdistanen berriz bizi dugu Estatuak berak zuzendutako borroka armatua, eta horrela gerrilla indartzen ari da. Bide politikoa, berriz beldurtuta dagoen herria bera bezalaxe, gerraren erdian harapatuta geratu da.

Fiskaltzak urte askotako espetxe zigorrak eskatu ditu doze-

naka alkate eta diputatu kurdurentzat. Erasoaldi hori muturreraino eramango al dute?

Neronek ez daukat inolako loturarik PKKekin, baina, hala ere, auzipetuta nago. Azken hauteskundeak egin zirenetik, Estatuak salatzen duena erruduntzat hartzen dute. Eta fiskalak eta epaileak bat datoz. Gu ez gaude epaileen aurka, baina ez gara errudun esan behar dugu. Gure 59 diputatuetatik 55i immunitatea kendu diete eta horietako hamar kartzelan sartu dituzte deklarazio judiziala egiteari uko egin diotelako. Gure alderdiko presidenteeekin hasi ziren atxilotetak eta agian bihar niri tokatuko zait. Aukera horren mehatxupean bizi gara denok, erabaki politiko baten eraginez. HDPren programa politikoan autonomia aurreikusten da, autonomia Turkiaren barruan.

Aukera horren alde lan asko egin dugu Parlamentuan eta harro gaude geure herriak eskatzen duena defenditzeagatik epaituak izateaz.

Turkiako Barne ministro berriak esan berri du aurtengo negua oso gogorra izango dela PKKrentzat. Zer behar da 2017an elkarrizketa prozesura itzuli ahal izateko?

PKK-k 40 urte egin ditu dagoe-neko baldintzarik konplexue-netan borrokan. Askotan era-kutsi dute beraiekin amaitzea oso zaila dela. Ordezkarik politi-ko moduan, oso zaila ikusten dugu elkarrizketa berreskura-tzea. Bide demokratikoak ondo funtziona dezake prozesu nor-malizatu batean. Asko kostatu zaigu hori ulertzea, garai bate-an bide armatua baino ez bai-tzen ikusten kurdu askoren ar-tean. Konponbide demokratiko baten inguruko itxaropena sor-tu genuen, bide horretan saiatu ginen behin eta berriz, eta arra-kasta izan genuen, hauteskun-deetan ikusi ahal izan zenez. Une honetan, aldiz, herritar as-kok uste dute bide politikoa oso posizio txarrean dagoela, horrenbeste lan egin arren, az-kenean arrakasta izan gabe bu-katuko den beldur da jendea. Erdogan presidenteak, oposi-zioan zegoela, askotan salatu zuen Gobernuaren izaera sun-tsitzailea. Orain AKP bere al-derdiak gauza bera egiten du. Horrela ezin da garaipen politi-korik lortu Ekialde Hurbilean.

Devlet Bahçeli MHP Mugimen-du Nazionalistako Alderdiko buruak bat egiten du orain Erdogan sistema presidentzialistarekin, lehen aurka zegoe-nean. Zergatik?

Erdoganek egiten duen presio faxistak bide natural bakarra dauka: nazionalismoa. Horre-gatik elkarrekin lan egin deza-kete. Erdoganek uste du bere helburuak lortzerik izango duela, nahiz eta MHP alderdia-ren barruan kide asko presi-dentearen agendarekin bat ez datozen. Cemaat Gulenen mu-gimenduarekin gertatu zen moduan, uste dute presidente-



ak MHP baztertu egingo duela aukeraren bat sortu bezain pronto. Gainera, MHPko sekto-re horiek badakite berriz hau-teskundeak eginez gero, Parla-mentutik kanpo geratzeko arriskua dutela. Ez dute horre-lakorik gertatzea nahi, kasu horretan AKPk nahi duen Go-bernua osatzeko aukera izango lukeelako. Beste kontu bat da Erdoganek arrakasta izatea, he-rritar asko baitago bere alde separatisten aurka egin duen apustuarengatik, ez sistema presidentzialistarengatik. Api-rilean egingo den erreferendu-mean Erdoganek ezarri nahi duen sistemak arrakastarik izango ez balu, nahi eta nahi ez hauteskundeak aurreratu egin beharko ditu.

Parlamentuko lana uzteko me-hatxua ere egin zenuten, baina azkenean atzera egin zenuten

«Demokraziak ondo funtziona dezake prozesu normalizatu batean. Asko kostatu zaigu hori ulertzea, garai batean bide armatua baino ez baitzen ikusten kurdu askoren artean»

hauteskunde berriak egin ez zi-tezen. Inkestek diote Parla-mentutik kanpo geratuko zina-ketela bozketak gaur eginez gero. Hautetsontzien beldur al zarete?

Ez diogu inolako beldurrik herritarrek esaten dutenari, hauteskundeak libreak eta demokratikoak izaten baldin badira. Ziur nago HDP alder-diak Parlamentura sartzea lortuko lukeela. Baina kon-tuan hartu behar da Exekuti-boia gure jarduera demokra-tikoa oztopatzen ari dela, Kurdistanen dauden segur-tasun indarren eta goberna-doreen bitartez. Uste dugu egoera horrek bai, horrek eragin dezakeela emaitzaren aldaketa larri bat.

Begirale batzuek esaten dute-nez, Baxar al-Assad da Siriak izan dezakeen gaitzik txikiena.

Baina nola fidatu Damaskoko agintariak?

Ez gara Baxar al-Assadez fio. Mundua orain hasi da ulertzen Rojavan (Siriako Estatuaren bar-ruan dagoen lurralde kurdua, iparraldean) izan dituzten lor-pen demokratikoak. Hori, bes-terik gabe, sekulako arrakasta da kurduontzat. Baxar al-Assa-dek benetako demokrazia eza-rriko balu, kurduak agintari ho-rrek egin dituen izugarrikeriak barkatzeko prest egongo lirate-ke. Baina horretarako akordio batzuetara iritsi beharko da. Ba-xar al-Assadek, berez, ez digu inolako bermerik ematen, baina Sirian dagoen errealtatea dago, eta, agintari autoritarioa den arren, etorkizunari begira dago-en aukerarik onena da gaur egun. Kurduok ezin dugu egoe-ra hori, errealtate hori, ukatu. Ekialde Hurbileko agintariek gu onartzea da nahi duguna.



George OURFALIAN | AFP



IKUSMIRA

TRENETIK ALEPOKO EKIALDEA SUNTSITUTA IKUSTEKO PARADA

Aste honetan berreskuratu du Alepok hiria alde batetik bestera zeharkatzeko tren zerbitzua, egoera normaltzen ari den seinale. Hori bai, bidaiariak 2012tik iazko abendura matxinatuen esku egondako hiriaren ekialdeak Gobernuaren aldekoen erasoen ondorioz jasandako suntsiketa ikusten dute trenaren leihoetatik. Errusia,

Turkia eta Iranek antolatuta, Damasko eta talde armatuetako ordezkariak Astana Kazakhstango hiriburuan izan dira asteon bertan. Izan dira diogu, aditzera eman denez bildu ere egin ez direlako. Gailurraren osteko komunikatua ere antolatzaileek soilik sinatu dute. Siriako hiriburutik gertu egunotan izandako bonbardaketek gerrak bere horretan jarraitzen duela erakutsi dute. Hala ere, talde matxinoen eta Al-Qaedaaren arteko enfrentamenduek etorkizun hobea iragar dezakete. Alepon ez bezala, bakearen azken trena aspaldi irten ote zen Siriatik ala izango du, hemendik urte batzuetara bada ere, herrialde suntsitu honetan geltokia?

Dabid LAZKANOITURBURU

EGIA ALTERNATIBOA: 2+2=5

«Komunikabideen aurkako gerran» da Trump, gezurra egiaren soinuan entzunarazi eta haizea solidotzea xede

📁 ATZERRIA / Mikel Zubimendi Berastegi

Kontsentsua hedatzen ari da: egiaren osteko aro batean bizi gara, egiaztagarri eta egiaztatuak diren gertaerek ez dute jada salbaziorik ekartzen. Horien aurrean, gezurraren eufemismo, «gertaera alternatiboak» daude. Berri faltsu eta teoria konspiratiboen politika azidoa nagusitzen ari da. Horren guztiaren adibide garbia eman du asteon Trumpek.

Azeleragailua topera sakatuta hasi du agintaldia Donald Trump Ameriketako Estatu Batuetako 45. presidenteak. Ez du egun bat pasatzen uzten alarma eta izua eragin gabe. Supremazista zurien, jeneral eta fanatikoaren izen-dapenak, shock neurriak bata bestearen atzetik, kalapitak etengabe, Twitter bidezko mezu-bonbak... kazetariak ez daude ez aspertzeko. Ezta kezka eta letrik baino askoz sakonago Trumpen fenomenoaz aztertze eta ekarriko duena aurreratze arrazoi faltan ere. Broma gutxi.

Presidente karguan egindako lehen egunotan zinez garratzak eta zikoitzak diren akusazioak egin ditu. Kazetariak «munduko gizaki desonestoen artean» dau dela ziplo bota du, baita «komunikabideen kontrako gerran» dela ere. Batere inplizitua ez den mehatxua eginez, argi ibiltzeko ere ohartarazi die: «kontu eman beharko duzue eta oso prezio altua ordainduko duzuela uste dut».

Amorratuta dabil Trump. Oso. Ebidentzia guztien aurka, argazkiek [alboko orrialdean] edo Washingtingo garraio autoritatearen datuek erakusten dutenaren kontra, bere kargu hartze zeremonian Obamarenean baino jende gehiago batu zela dio. Ebidentziari uko eginez, kontrako publikatzea berak sortu duen gogoberotasun herritarra gutxiesteko saio lotsagarri eta zitala dela dio. Milioi eta erdi jende bildu zirela, egiazki erdira ere iritsi ez zirenean.

Ez da zeremoniaren kontua bakarrik. Errusiako inteligentzia zerbitzuek bere alde konspiratu zutela eta beraz hainbat informazio delikatu dituztela zioen CIAren txostena komunikabideek ontzat eman dutelako ere haserre dabil oso. AEBetako presidente izanik bere herrialdeko inteligentzia komunitatea Alemaniako naziarekin konparatzen duen txio bat zabaltzeraino heldu da.

Horrela zeuden kontuak Sean Spicer Trumpen administrazioaren prentsa idazkari eta aurpegi publikoak, ebidentziarik eman gabe, jakina, Trumpek Hillary Clintonek baino ia hiru milioi boto gutxiago jaso bazituen, «milioika herritarrek legez kontrabotatu» zutelako izan zela esan zuen arte. Sekulako polemika piztu da. Beste bat, enegarrarena. Ez da gutxiagorako.

HERRI MANDATU GABE PRESIDENTE

Presidente batek hauteskundeak irabazi, eta, hala ere, bere kontrako «putxerazoa» egon dela zabaltzeak kafkiarra dirudi. Baieztapen horren frogarik ez ematea oso larria da. Kongresuko liderrekin batzartuta zegoela «bost milioi immigrante ilegalek» botatu zutela esan zuen. Trumpen arabera AEBetan hauteskunde iruzur handia egon da, historian izan den boto lapurreta handiena. Latza da oso AEBetako presidenteak berak herrialdeko hauteskunde prozesuaren zuzentasunean konfiantzarik ez izatea, latza benetan.

Bistan da Trumpen psikologian zauri irekia eragiten duela boto kopuruan Clintonen atze-

tik geratu izana. Ezin du hori jasane. Besteak beste, presidente dela baina herriaren mandaturik ez duela aditzera ematen duelako, bera erasotzeko helduleku aparta delako.

Bizpahiru egunetan polemikok guztiok eta bost gehiago piztu ditu. Purrustadok sostengatzeko ebidentziarik ez dago. Egiaren zantzurik ez da inon. Berdin da. Trumpen aholkulari Kellyanne Conwayren arabera, «gertaera alternatiboak» dira. Gertaera objektiboen aurrean, beraiek beren gertaera propioak aurkezteko eskubide osoa dutela dio. Lasai-lasai gainera!

ALDARE SAKRATUAREN PROFANAZIOA

Zenbateko distantzia dago Trumpen «gertaera alternatibo» horien eta «2+2=5» ustezko eragiketaren artean? Errealitatea arbuiatzeko gonbite absurdua izateaz gain, gezur nabaria da. Orwellek bere «1984» eleberri distopiko klasikoan aspaldi aurreratu zuen jukutria da. Ezjakintasuna indarra zen Orwellen narrazioan, gertaeren gaineko konfiantza eza etengabe

«Kazetariak munduko gizaki desonestoen artean zaudete. Ni komunikabideen kontrako gerran nago, kontu eman beharko duzue eta oso prezio altua ordainduko duzuela uste dut»

Zenbateko distantzia dago Trumpen «gertaera alternatiboen» eta «2+2=5» ustezko eragiketaren artean? Errealitatea ukatzeko gonbite absurdua izateaz gain, gezur nabaria da

be lantzen zen, hizkuntza politikoa gezurra egiaz jantzeko eta hilketak errespetagarri egiteko diseinatuta zegoen, haizeari sendotasun itxura bat emateko.

Orwellen «Abereen etxaldea» eleberri laburrean, estalinismoaren gainean idatzi den satira ederrenean, Squaller txerri propagandistak «beltza zuri bilaka dezakeela» aipatzen du. Nola bait ere gertaerek orain arte izandako aldare sakratuaren profanazioaren aurrerapena da.

Urteetan zehar, komunikabide tradizionalen urrezko araua honakoa izan da: egiaztagarria eta egiaztatua dena baino ez da publikatzen. Nolabaiteko estandar profesional eta etikoa zen. «Gertaerak sakratuak dira, eta, iritzia, librea» da hainbat erre-dakziotako sarreraren zintzilikatutako oroigarria. Demokrazia okerreko bidetik zihoanean, boto-emaileak manipulatu zuten denean edo politikariak galderak saihesten zituztenean, gertaeretara jotzen zen salbazioaren bila. Eta zeregin horretan komunikabideak zaindari funtzioa betetzen zuten.

Trumpen kasuan, egia da BuzzFeed Interneteko berrien enpresak egiaztatu gabeko espia britainiar batek bere gainean egindako txosten osoa argitaratu zuela. Moskuko Ritz Hoteleko logela presidentzialean ustez gertatutako oso pasarte morbo-so eta esplizituekin. Aitzakia ederra eman zioten Trumpi kontraerasora pasatzeko. Haizagailua jarrita, egian oinarritutako kazetaritza serio eta oldarkorra egiten duten profesionalak mehatxatzeko.

AITA SANTUA TRUMPEN ALDE?

Errua, baina, ez da soilik Trumpena. Bai, larria da komunikabideen eta kazetarien kontra dabilen tonu hori. Baina askoz lehenagotik datorren eta askoz harago doan joera da. George W. Bushen «gure errealitate propioa sortzen ari gara» bezalako-



Behean, ezkerretara, Obamaren
lehen kargu hartze
zeremoniako argazkia.
Eskuinean, Trumpen kargu
hartzea. Hitzak soberan daudela
dirudi, dena esanda dagoela. Ez,
ordea, Trumpentzat. Ebidentzia
ukatuz, berak jende gehiago
batu zuela dio, hori dela «egia
alternatiboa», eta kontrakoa
dioten kazetariak «munduko
pertsona desonestoen artean»
daudela.
GAUR8

ak botatzen zituenean, Trumpek orain perfektionatu eta lehertu duena baino ez zuen aurreratu. Ebidentzian oinarritutako politika alboratzen ari dira, eta, politika beraren kaltetan, antagonismo azido bat gailentzen ari da, telebistako performance baten forman eta formatuan.


Berri faltsuak diru azkarra dira. Horra beste egia bat. Gehiago ere badago, ordea. AEBetako kanpaina publikatutako analisiak erakutsi dutenez, Facebook sare sozialean hedatu ziren hoge berri faltsuk aktibitate gehiago (“Iruzkinak”, “Atsegin dut”, “Elkarbanatu”...) sortu zuten komunikabide tradizionalen hoge izenburu garrantzitsuek baino. Francisco aita santuak Trumpen aldeko botoa eskatu zuela zabaldu zen gisa horretako “berrietan”, baita putxerazorik gabe Clintonek ez zuela boto herritarrean irabazterik edota “manifestari biolentoak” ordaintzen ari zirela Trumpen aurka ekiteko ere.

Egia da deriba horren ardura handia Interneteko konpainia erraldoiek dutela. Globalki 1.800 milioi pertsonetarako irismena duten Facebook bezalako konpaini erraldoiek aski luke algoritmoak aldatzearekin berri faltsuok, trollen gehiegikeriak, konspirazioaren teoriak, fanatismoa eta gorrotoa zabaltzen duten mezuak... blokeatzeko. Baina, *business as usual*, ez dute halakorik egiten.

ESAERA ZAHARRA, ZAHARKITUTA

“Gezurak hegan egiten du eta bere atzetik herrenka dator egia” dio jada zaharkitua geratu den esaera zaharrak. Nolabait iradokitzen duelako, azkenean, egiak bere bidea egiten duela eta gezurrari gailentzen zaiola. Egungo errealitatean, ordea, ez da hori gertatzen. Ez horixe!

Trumpekin, Brexitarekin, bake akordioaren inguruko Kolonbiako erreferendumean... ikusi da hori erakusten duten ebidentziarik ez dela inon ageri. Aitzitik, gero eta gehiago dira “gertaera alternatibo” deituriko gezur eta berri faltsuen sareetan atrapatuta geratzen ari diren pertsona eta prozesu politikoak.





Saioa Aginako
Psikoterapeuta

Bizitza begien aurretik

Ospakizunak, salneurrien igoera eta elurteak atzean utzita, urtarrila iragartear dago. Iparraldeko haizeaz gain, urte berriak desioak, nahiak eta helburuak ere ekarri ditu besapean.

Oso ohikoa baita urte hasieran gure buruari jomuga existentzialak proposatzea; urte berria zerbait hasteko aukera bezala ikusten baitugu, ziklo berri bat hasteko unea, alegia. Horien artean egon daitezke lanez aldatzea, harremanen bat bideratzea edota proiektu pertsonal bat abian jartzea, esaterako. Eta horretan dihardugunean, proposamenak burutik ahorako trantsizioan ari direnean, gaurko helburuak atzokoak direla konturatzen gara bat-batean; orain duela urtebete gure buruari proposatu genizkion helburu berdinak oraindik burutzeke ditugula, alegia. Zergatik kostatzen zaigu hainbeste helburu horiek aurrera eramatea gure garapen pertsonal eta osasun mentalerako hain beharrezkoak izanik?

Esan genezake aldaketak esna egiten ditugun ametsekin hasten direla. Hoina ez dago arazorik. Kontua da batek ezin duela ametsetatik bizi; ametsak denboran zehar gehiegi luzatzen direnean eta gure bizitzaren osagai nagusi bihurtzen direnean, pisutsuak egiten baitzaizkigu.

Ametsak ez dira plazera sentitzeko, ekintzen bitartez egia bihurtzeko baidir. Gure pentsamenduan metatuak geratzen badira, aurrera eraman ez dugunaren oroimena sentitzeko baino ez dute balioko. Baina ametsak errealitate bihurtzeak ahalegin handia eskatzen du, hori guk geuk kudeatu beharreko erronka baita.

Desioak egia bihurtzeko ekintzetara pasa beharko dugu; hau da, buruan sortu den nahiak ekintza izatera pasa beharko du gauzatua izan dadin. Hori izaten da hain zuzen blokeoa gertatzen den unea: gure helburuek gure "ongizate-gunetik" kanpo ateratzera behartzen gaituztenean gertatzen dena. Psikologian "ongizate-gunea" norberak sortutako eremu kontzeptuala da eta ziurgabetasuna, eskasia eta zaurgarritasuna hortik kanpo manten-

tzen ditu. Alderantziz, babesa eta segurtasuna lasai asko mugitzen dira bertan; zehatz-mehatz ezagutzen dugun hori barneratzen du eta gustura sentiarazten gaitu. "Ongizate-gunea", hitz gutxitan, dena kontrolpean izatearen sentsazioa dugun eremu bat da.

Nola jakin nire «ongizate-gunean» ote nagoen? Zure aukeren artean kokatzen den zerbait egin nahi duzu -bidaia bat, ogibidez aldatzea edo harreman batekin amaitzea adibidez- eta egite horrek zure bizitzaren egunero-kotasunean ekarriko duen aldaketak beldurra sortzen dizu. Hala ere, ez zara zauden lekutik mugitzen segurtasun falta horrek sortzen dizun ezinegona ekiditeko asmoz. Hori gertatzen bazazu, jakin ezazu zure "ongizate-gunean" zaudela.

Seguruenik ondorengo pentsatzen duzu: zure "ongizate-gunean" hain gustura baldin bazaude, zertarako atera behar duzu hortik? Hortik ateratzen garenean, gure mugak zeharkatzeaz gain, pertsona eta esperientzia berriak ezagu-

tu eta bizitzeko aukerak agertzen zaizkigu. Horrek guztiak, garapen pertsonala bultzatzearekin batera, aukerak areagotu egiten ditu eta bizirik egotearen sentsazio pozgarriagoa sortzen du.

Beraz, "ongizate-gunea" uztean, barneko zein kanpoko mugak agertzen hasiko dira. Hartara, muga horiek onartu eta nola aurre egin pentsatzeko garaia helduko da. Aldi berean, prozesua norbaiten laguntzarekin eginez gero, lagunen batekin zein terapeuta batekin, errazagoa izan daiteke. Bidean zehar ezagutzen eta kontrolatzen ez ditugun egoerak agertuko dira, gure ohituretatik aldentzen direnak. Horiek eramangarriagoak izango zaizkigu, aldaketak onartzeko gaitasuna lantzen dugun heinean. Eta gogoratu, aldaketarako ekintza xumeena ere, aurrerapauso handia da helburu berriaren lorpenean.

Ez zaitzala beldurrak gobernatu, bizitza etengabeko aldaketak eta ustekabe-ko opariak ekartzen dituen lur emankorra da, ongarrirituz gero noski! •

saioaaginako@gmail.com



Ez zaitzala beldurrak gobernatu. Bizitza aldaketez betetako bidea da.

GAUR8

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

«America first», «España adelante»... Euskal Herria?

Errusiar sobieten iraultzaren mendeurren honetan ezin zitekeen irudi harrigarriagorik eta lotsagarriagorik aurreikusi: kapitalismo basatienaren ikur gorenena den Donald Trump magnatea, ustekabeen Ameriketako Estatu Batuetako Etxe Zuriaren jabe, eta hori gutxi balitz ukabila altxatuta eta herri boterea goraipatuz. Gizaki guztien arteko berdintasunaren balorea oinarri zuen mugarri hartatik egungo berdintasun ezaren gorai-pamen eskandalagarrira bitarte (Oxfamen azken ikerketa lekuko), gatazka, bihurtune eta gorabehera askotxo izan ditu Historiak eta norabidea berriz ere errotik aldatzeko borrokari eutsi beharko zaio, baina 2017ko gainbehera etsipengarria da. Eta deigarria da ikustea eskubide orokorren aurkako atzerakada horiek gero eta gehiago abertzaletasunaren mozorroaren azpian datozela, nabarmen. “*America first!*” izan da Trumpen aldarria Kapitolio aurrean; nolabaiteko “Goratu eta gutarrak!” bat, baina dudarik ba al da “gutar” horiek jatorriz estatubatuarrek dirudunak-gizonak-zuriak baino ez direla, eta bere politikek gutxiengoak –bai eta zenbait gehiengo ere– bazterrean utziko dituztela, osasun arreta galduko duten 20 milioi herritarretik hasita?

Mapamundiaren gainean lupa gugandik gertuago jarritz, gutxi batzuen intereserako abertzaletasuna amu gisa erabiltzen du PPK ere. Bi asteren bueltan egingo duen batzar nagusirako “*España adelante*” leloa aukeratu du, bere garaian Fuerza Nueva alderdi ultraeskuindarrak erabili zuen berdina, alegia. Trump eta Rajoyren artean antzekotasun gutxi daude jokoera aldetik. Hiperakzioaren laguna da lehena eta gauzak usteltzen uztean maisu bigarrena, Narciso eta Tancredo modernoak, baina helburu bera dute baten eta bestearen erabakiek: krisialdi latzenaren ostean kapitalismoaren zutoinak berrindartu, albokoen pribilegioak bermatuz eta guztionak diren eskubideak eraso. Beldurra aldeko tresna bilakatu dute. Eta gezurra bide, egiak (benetako gertaerak, datu baieztagarriak...) gizarte honetan gero eta pisu ahulagoa duela baliatuz.

Eskuin muturreko abertzaletasunok etsaia behar dute, beldurra eta gezurra eraginkorrak izan daitezten. Etxe Zurikoak bereziki etorkinak aukeratu ditu horretarako, Me-

xikoren muga eraiki asmo duen harresia lekuko. Baina honetan ere badu pareko Madril: zalaparta gutxiagorik altxatu zuten Aznar, Zapatero eta Rajoyren artean Melillako hesia. Hala ere, Moncloakoentzat gaurko mamu nagusia ez da Mediterraneo bestaldean kokatzen, itsaso beraren ertz honetan baizik: Katalunian. Horren aurkakotasunean gizentzen da beraien abertzaletasuna.

“*America first*”, “*España adelante*”, Le Pen, Farage... eta bitartean zertan da Euskal Herria? Berea sutsu gorde duen eta bere buruaz harro honaino heldu den herriak bestelako abertzaletasuna garatu ohi du. Ezkerrekoa izan ala eskuinetik gertatuago kokatu, kanpora begira irekiagoa eta barrura begira justuagoa izan da euskal abertzaletasuna, eta balore horiek ezinezko egiten dute, oraingoz behintzat, Trump, Rajoy, Le Pen, Farage, Berlusconi edota abar luzearen antzeko agintari sasisalbatzaile baten atzaparretan erortzea.

Trump, Rajoy, Le Pen, Farage... eskuin muturreko abertzaletasun horien aurrean, kanpora begira irekiagoa eta barrura begira justuagoa izan da gurea, baina, norantz doa? Eta nahiko eusten al dio korronteari?

Zailagoa zaigu, ordea, lurralde bateraturik eta lidergo garbirik ezean, agertoki nahasi honetan Euskal Herria norantz doan asmatzea, edota sakoneko ur korronte indartsu horiek nola eragingo dioten aurreikustea. Indefinitio horretan, arrisku nabariak begi aurrean jartzen hasi zaizkigu; esaterako, diru sarrerak bermatzeko errentaren inguruko hainbat aipamen maltzurrek gehien dutenei gehiago eman eta gutxien dutenei gutxiago emateko nahia azaleratzen dute; zenbait istilu txiki eskaintzen zaion gehiegizko oihartzunak segurtasun ezaren mamua zabaldu nahi du; Kataluniaren aferaz axolagabekeria edo epelkeria uste baino errazago zabalitzen ari da hainbat abertzalaren artean. Eta hala ere, Euskal Herriaren etorkizuna jokoan dago Katalunian, Madril, Bruselan, bai eta Washingtonen ere; ekidistantziarik onartzen ez duten esparruetan, alegia. •

DURANGO1936.ORG

Isildutako minak kabitzeko moduko
ikus-entzunezko bankua abiatu dute

MEMORIA HISTORIKOA / amagoia.mujika@gaur8.info

Duela 80 urte baino gehiago gertatu zen. Oraindik, baina, asko dago kontatzeko altxamendu faxistari buruz. Horren jakitun abiatu zen Durango 1936 elkarte testigantzak jasotzera, urte askoan isilik egondako ahotsak orain itzaltzen ari direlako. Asteon aurkeztu dute bilketaren emaitza: Durango1936.org webgunea.

Historia ofiziala irabazleek idazten dute. Eta, galtzaileek, zer egiten dute? Batzuek ingurukoei kontatzen dizkiete bizitako sufrikarioak. Beste batzuk isildu egiten dira, betirako isildu; beldurragatik, bakeagatik, honengatik edo hargatik. Baina kontatzen ez dena ez omen da existitzen.

Horrekin konformatu ez eta 2007. urtearen bueltan galtzaileengana gerturatzen hasi zen Durango 1936 elkarte, 1936ko altxamendu faxistak isildutako ahotsak, itotako minak, gehiegi izan direla jakinda. Aste hone-


tan aurkeztu dute geroztik egin-dako bidearen emaitza: Durango 1936.org ikus-entzunezko webgunea. Bertan jaso dituzte 75 elkarrizketatik ateratako zortziehun bideo labur baino gehiago, Durangaldean eta Durangon altxamendu faxistaren ondorioz jende gehiegik sufritutakoaren parte bat baino ez. Sortutako ikus-entzunezko bankua aberatsa da testigantzetan eta anitza kontaketatzen, gertarak bizitzeko, gogoratzeko eta kontatzeko modua norberak berea duelako.

Esan bezala, Durango 1936 izeneko elkarte 2007an sortu zen parean helmuga bat jarrita: «askatasunaren eta Euskal He-

rriaren nazio-eskubideen alde faxismoari aurre egin zioten Durangaldeko herritarrei omen egitea, euren borroka gogorra eta sufrimendu latza ezagutaraztea eta zor zaien ohorea aldarrikatzea». Eta helburu horiekin lanean hasi ziren hainbat testigantza jasotzen, urte askoan isilik egondakoei ahotsa jartzen.

Elkarteko kide den Andoni Barreñaren hitzetan, «urtero hasi ginen 'Agurrik Gabeak' izeneko omenaldia egiten, asko eta asko izan baitziren inork agurtu gabe joan zirenak, ez zietelako horretarako inolako aukerarik eman. Eta segituan konturatu ginen haien ondorengoen bizipenak eta sentimenduak ez daudela ja-

Ezkerretik eskuinera, Andoni Barreña, Unai Iturriaga eta Javier Conde «Txiki». Barreña eta Conde Durango 1936 elkarte kideak dira, eta, Iturriaga, webguneko edukien editorea.
Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS



BURUZ BEHERA EDO AHOZ GORA BIZITAKO BONBARDAKETA

Luis Altuna Ercillak hamabi urte zituen 1937ko martxoaren 31n Durango bonbardatu zutenean. Duela hilabete batzuk zendu zen, baina bere testigantza utzi du ondare. Detalle harrigarriekin kontatzen zuen, 80 urte geroago, mutiko hark ikusitakoa. «Goizean bonbardatu zuten herria eta jende guztia herri-
tik kanpo zihoan. Sua eta kea zeuden bazterretan. Denek ai-

tari buruz galdetzen zuten, inork ez baitzuen ikusi. Amarekin eta amonarekin elkartu nintzen, frontean mugimendua etengabekoa zen eta pentsatzekoa zen beste bonbardaketa bat gertatuko zela. Etxea itxi eta herri-
tik kanpo aldera joan ginen, baratze batzuen ingurura, zanga batean ezkutatze-
ko asmoz. Arratsaldeko lau eta erdiak aldera lau hegazkin azaldu ziren. Zangan etzan ginen. Denak buruz behera jarri ziren, eskuekin bu-

rua babestuz. Ni, ahoz gora. Bonbak nola erortzen ziren ikusi nahi nuen. Harrigarria iruditu zitzaidan lau hegazkinen jarduteko modua. Lauak batera etorri ziren, baina buelta bakoitzean batek deskargatzen zuen. Txandaka. Gerora inori ez diot entzun det-
taile horri buruz ezer, baina ni begira nengoen eta harritu egin nintzen. Lau buelta egin zituzten herriaren gainean eta buelta bakoitzean hegazkin batek deskargatu zuen. Erasoa



Durangaldeko gudari talde bat. DURANGO1936



«Gure asmoa ez da historia akademikoa jasotzea, baizik eta bizipenetatik eta sufrimendutik eraiki daitekeen historia jasotzea. Eta lekukotasunak biltzen hasi ginen»

Elkarrizketa guztiak bideoz daude jasoak. «Garrantzitsua zen iruditan jasotzea, hor sentimenduak eta emozioak daudelako eta kontaketa aberastu egiten dutelako»

sota inon. Gure asmoa ez da historia akademikoa jasotzea, baizik eta bizipenetatik eta sufrimendutik eraiki daitekeen historia jasotzea. Eta lekukotasunak biltzen hasi ginen».

Historia “ofizialak” kontatzen ez dituenak jasotzen ditu aipatu webguneak. Izan ere, zer da historia ofiziala? «Historia ofizialean irabazleak eta galtzaileak egon behar badute, guk ez dugu historia ofizialean sinisten. Ez dugu horretan sinisten, galtzaileak izatea egokitu zaigulako segur aski. Guk galtzaileen istorioak jaso ditugu, horiei ahotsa eman nahi diegulako».

Horrela hasi ziren errepresaliatuen eta haien ondorengoentestigantzak jasotzen, horretarako premia larria sentituta eta helburu garbirik gabe. Hasieratik Durangoko Udalarekin hitzarmen bat lortu zuten eta horren babesean urtero hamar bat grabaketa egin dituzte.

Durango 1936 elkartearepresaliatu talde batek osatutakoa da eta beren inguruan bazutentestigantzak non jaso. Baina horrez gain urteotan sare modukoa osatzea lortu dute herrian eta jende dezente hurreratu zaie haien sufrimendu historia kontatzera. Bazuten, beraz, nondik hasi testigantzak biltzen. Nabarmenezkoa da, gainera, bilketa lan hori moduboluntarioan egin dutela. «Grabaketak egiten hasi eta berehala konturatu ginen gidoi bat behargenuela. Aranzadiren gidoi bat eta Debagoieneko beste talde batena lortu genituen, eta horiek abiapuntu hartuta gidoi bat moldatu genuen. Gero, noski, elkarrizketatu bakoitzaren arabera ere moldatu behar izan dugu gidioia».

Elkarrizketa guztiak bideoz daude jasoak eta hori faktore garrantzitsua izan da. «Guretzat garrantzitsua zen iruditan jaso-

bukatu eta erretiratzera zihozela zirudienean, ehiza-hegazkinak azaldu ziren, bata bestearen atzetik. Inguru guztiak metrailatu zituzten, herritik aparte zeuden baratzetan ezkutatutakoak harrapatu nahi zituzten. Beldur handia pasatu genuen, gure inguruan ere metrailatu zutelako, gugandik oso gertu. Berehala hasi ziren kamioiak azaltzen, hildakoak hartu eta hilerrira eramateko. Bada gertaera bat beti buruan izan dudana. Zangan sartuta ginenean, emakume bat azaldu zen inguruan, haur txiki bat besoetan zuela. Ezkutatzeko toki baten bila zebilen eta azkenean gure aurreko baratze batean ezkutatuzen, landare luze batzuen artean. Eraso amaitu zenean,

inor ez zen ausartzen landare haietara hurbiltzen. Segituan sumatu genuen kamioia hor inguruan. Handik gutxira, miliziano bat etorri zen eta besoetan haur bat zuen emakume bat ikusi al genuen galdetu zigun. Inork ez zion erantzun, mutu geratu ginen. Azkenean gurekin zegoen gudari batek esan zion landare horien artean ezkutatu zela eta berekin hurbildu zen toki hartara. Dagoneko gorpua eramana zuten kamioian, baina emakumearen arropak han zeuden. Gogoan dut milizianoak nola egiten zuen negar arropa haiek eskuan hartuta».

Lucia Ganboak ere ederki goratzen du bonbardaketa gertatu zen eguna. Goizeko konta-



Luis eta Benedicta, Luis Altuna Ercillaren gurasoak. DURANGO1936

ketaren inguruko zenbait pasarte jarraian: «Amak txikoria fabrikan egiten zuen lan. Lanera joan zenean eskutitz bat utzizidan, Bilbon bizi zen izebarentzat. Gosaldut eta eskutitz hura Correos-era eramateko aginduzidan. Bota nuen eskutitza eta etxerantz nentorrela entzun nuen lehen sirena. Lehenengoa *alarma* izen zen, gero segidan *peligro*. Etxera iristerako nire izeba bat atean zegoen, kanposantu bidera joan behar genuela esanez. Ohituta geunden, beti hara joaten ginen hegazkinak etortzen zirenean. Egunero etortzen ziren hegazkinak eta paperak botatzen zituzten. Gogoan dut paper haietan jartzen zuena: *‘Durangueses rendios. Si no os rendis arrasaremos Du-*

tzea, hor sentimenduak eta emozioak daudelako eta kontaketa aberastu egiten dutelako», nabarmendu du Barreñak.

«Ez genekien nora iritsiko ginen. Testigantzak biltzen eta grabaketak egiten ari ginen, baina ez genuen buruan gerora webgune bat egingo genuenik. Ez genekien hamar testigantzara iritsiko ginen ere. Eta orain, laurogeitik gora jaso ditugunean, nahiko garbi daukagu ehun testigantza biltzera irits gaitezkeela. Baina orduan ez genekien hori guztia. Genekien bakarraz testigantza horiek jaso egin behar zirela, jendea oso pozik geratzen zela eta kasu batzuetan inori kontatu gabekoak kontatzen zizkigutela. Esaterako, bada emakume bat frankismo garaian torturatua izan zena eta inori kontatu ez ziona, ezta senarrari ere. Eta konturatzen ginen kasu askotan beren istorioa kontatu eta jendea oso lasai geratzen zela».

Batzuetan, beraz, terapia modukoa izan da kontaketa eta, askotan, zoritxarrez, min handia ematen duen zauri bat irekitzea. «Batzuetan testigantza ematen ari zena negar bizian hasi izan da. Hala eta guztiz ere, gehienek

asko eskertu dute galdezka gerturatu izana, aurretik inor ez baitzaie horrela hurbildu, inork ez baitie galdetu pasa zitzaienaz eta sufritu zutenaz».

BILDUTAKOAREKIN ZER EGIN

Bildu eta bildu, esku artean laurogeitik gora grabaketa zituztela, zeozer egin beharra zutela pentsatu zuten. «Guk bideo bakoitzaren lau kopia egiten ditugu. Bat elkarrizketatuari ematen diogu –edo berak eskatu adina–, beste bat guretzat izaten da; hirugarrena, Gerediaga Elkartearentzat, eta, laugarrena, Durangoko udal artxiboan uzten dugu. Eta dagoeneko pentsatzen hasi ginen bildutako materialarekin zerbait egin beharra zegoela. Hasiera batean liburu bat genuen buruan eta Unai Iturriagarekin jarri ginen harremanetan. Lehendik ere bagenuen elkarren berri, Unaik –Alex Sanvirekin batera– ‘Udaberririk ankerrena’ komikia argitaratu zuelako. Guretzat proiektu oso garrantzitsua izan zen, belau-naldi berriei gertatu zena gerturatzeko modu ederra. Oso arrakastatsua izan zen. Bagenekien, beraz, Unai gaiarekin sentsibilizatuta zegoela eta ezagutzen

«Batzuetan testigantza ematen ari zena negar bizian hasi izan da. Hala ere, gehienek asko eskertu dute galdezka gerturatu izana, aurretik inor ez baitzaie horrela hurbildu»

«Testigantzak biltzen jarraitu beharko dugu, daudenak aldatzen edo moldatzen, sortzen den materiala batzen... Etorkizunean lana izango dugu webguneak martxan segi dezan»

zuela eta beregana hurbildu ginen material horrekin guztiarekin zer egin ikusteko».

Unai Iturriagak berehala esan omen zien material hori guztia ez zuela egoki ikusten liburu baterako, webgune baten aukera askoz egokiago ikusten zuela, eta elkartekoek ere segidan ikusi zuten bide hori. «Webgune bat jende askorengana iristeko egokiagoa da, edozein momentutan aldatu edo aberastu daiteke, testigantzak lehen pertsonan entzutea desberdina da...», esan du Barreñak. Elkarrizketatu gehienek primeran ikusi dute webgunearen ideia, nahiz eta gutxi batzuek nahiago izan duten beren testigantza sarean eskuragarri ez jartzea.

Aste honetan bertan aurkeztu dute webgunea jende aurrera, baina badakite aurkezpen hori ez dela ezeren amaiera, hasiera baizik, webgune bat proiektu bizia delako. «Badakigu testigan-

tzak biltzen jarraitu behar dugula, daudenak aldatzen edo moldatzen, sortzen den materiala batzen... Etorkizunean lana izango dugu webguneak martxan segi dezan, inbertsioak ere egin beharko dira. Ez da erraza izango, baina guk proiektua osatzen jarraitu nahi dugu».

Bada Durango 1936 elkarteko kideek askotan errepikatzen duten esaldi bat: «Badakit berandu gabiltzala, baina...». Proiektu hau martxan jarri zutenetik ere oso presente izan dute baldintza hori. Eta datua oso esanguratsua da: webgunean agertzen diren elkarrizketatuen herena dagoeneko hilda dago.

KONTAKETA POLIEDRIKOA

Durango 1936.org webguneak badauka tasun oso interesgarri bat: erabat poliedrikoa da. Ahots desberdinak eta gertaera berdinaren inguruko kontaketa oso desberdinak jasotzen ditu, norberak horrela bizi izan zuelako edo horrela gogoratu zuelako urteetan barna. «Ez da kontaketa bat edo bestea hobetsi, denak jaso dira. Ez dago tesi bakar bat. Adibidez, Durangoko bonbardaketaren eguna batzuek era batera kontatzen dute, eta,



Nicolas Barreña, umetan gurasoekin. DURANGO1936

rango. *El General Mola*’. Egun horretan ere kanposantura bidean gindoazela hasi ziren hegazkinak gerturatzen, eta guk paperak botako zituztela pentsatzen genuen. Baina, bat-batean, bonbak botatzen hasi ziren eta denok lurrera jauzi ginen presaka. Lurra sartzen zitzaigun ahora. Gogoratzen du haur bat negarrez eta negarrez hasi eta esaten zuela: ‘*ama, ama, yo fui el que te comi el chocolate*’. Hark pentsatu zuen han hilko zela eta bekatu hura konfesatu behar zuela hil aurretik. Hortik joateko esan ziguten, arriskutsua zela. Kanposantura joan eta panteoietan sartzeko esan ziguten, han seguru egongo girela. Kanposantura bidean hi-

lekin goraino beteta zetorren kamioia ikusi genuen. Miliziano bi kamioiaren atzean fusilarekin. Gure ondotik pasa zenean gorpu bat jauzi zen kamioitik lurrera. Burua zulatuta, arropa gorria, besorik gabe... denak builaka hasi ginen. Bota zituzten hara hildako guztiak eta kamioia bueltan joan zen, hildako gehiagoren bila. Egun guztia horrela pasatu zuen».

LAPURRETAK


Gerra latza izan zen, baina ondorengoa ere ez zen samurra izan. Duela gutxi zendu den Alberto Barreñak kontatzen duenez, «Durangora etorri ginen eta ez genuen ezer topatu. Dena lapurtu ziguten. Zen-

bait etxetan garbi agertzen zen idatzita paretan: ‘*respetar esta casa porque es de carlistas*’. Guk etxean gauza asko genituen. Ameriketara joandako osaba bat genuen, amaren anaia, eta hark ekarritako gauza interesgarriak genituen. Tartean, gramofono bat eta biolin bat. Dena desagertu zen. Susmoa daukat gure osabaren biolina Mañariko batzuen etxean egon dela. Nola dakidan? Duela gutxi jakin nuen, GARAKO ZAZPIKA aste-karian irakurri nuelako, Mañariko nire lagun batek biolina jotzen zuela. Ni baino bizpahiru urte gazteagoa zen. Bere iloba batek kontatzen zuen erreportaje horretan berak biolina maite zuela Maña-

besteek, beste era batera. Bertsioren bat gezurra da? Ez, baikoitzak bere egia duelako. Baina hori ez da garrantzitsua. Garrantzitsua da norberak nola bizi zuen, nola gogoratzen duen eta nola kontatzen duen, hori baita bere egia», gaineratu du Iturriagak.

Bada Durangon gertaera bat ez dena oso sonatua, nahiz eta faxistek askotan eta ozen salatua izan den. 1936ko irailaren 25ean Durangora hegazkin bat etorri eta bi bonba jaurti zituen. Frontoian pilotan ari ziren 17 miliziano hil zituzten. Herritar batzuek, haserre, kartzela asaltatu eta eskuinekoak ziren 22 preso hartu zituzten. Hilerrira eraman eta bertan fusilatu egin zituzten. Epaiketak gabe. «Bitxia da, gertaera hori askok aipatzen dute, baina ikuspuntu desberdinetatik. Eta kontaketa horietan badaude zenbait gauza kontrajarriak. Elkarriketatu guztiak agertzen dira gertaera horren kontra, baina baikoitzak kontatzen du ertz desberdinetik. Ikuspuntu poliedriko hori oso interesgarria da», segitu du Barreñak.

Gertaera horrek gogor markatu zuen gerora Durangaldeko zenbait herritarrek sufritu zu-



Lehen planoan, Andoni Barreña. Bigarren planoan, ezker-eskuin, Iñaki Garaita eta Javier Conde «Txiki». Durango 1936 elkarteko kideak eta errepresaliatuena ondorengoak dira.
Aritz LOIOLA | ARGAKZI PRESS

ten errepresioa eta gertatu ziren zenbait fusilamendu. «Gauza bitxiak gertatzen dira. Omenaldi batean, Eskubiren semeari durangar bat etorri zitzaion eskerak ematera, Eskubik bere aita salbatu zuelako egun hartako kanposantuko fusilamendueta-tik. Eta gauzak nola diren, gero frankistek Eskubi fusilatu egin zuten hilketa horiek egotzita. Durangaldean akaso saiatu dira gertaera horiek ezkutatzen, baina faxistek askotan aipatua izan

da eta omenaldi handiak egin dizkiete fusilatu haiei», nabarmendu du Barreñak.

«Durangok bonbardaketa krusdelak bizi izan zituen; martxoaren 31n, apirilaren 2an eta 4an. Hirurehun durangar baino gehiago hil ziren eta durangar asko hori estaltzen saiatzen dira. Urte askoan kasik debekatuta egon da horri buruz hitz egitea. Baina inor ez da konturatzen herri bat horrela bonbardatzen dutenean denak direla jomuga?

Zaharrak, gorriak, zuriak, umeak... Herria txikitzen etorri ziren, denon kontra egitera etorri ziren. Oso zaila izan da azken 80 urtean durangar askok hori ulertzea».

Durango 1936 elkarteak garbi dauka webgunea ez dela elkar-tearena, errepresaliatuena eta haien ondorengoena baizik. «Errepresaliatuena biografiak ere jaso ditugu eta asmoa da horiek osatzen joatea, errepresaliatuena ondorengoek haien historia kontatzea eta webgunean zintzilikatzeko aukera izatea. Guretzat oso garrantzitsua da eurek erabakitzea nola nahi duten beren aurrekoak gogoratuak izatea».

Durango 1936 elkarteak martxan jarraitzen du, asko dagoelako egiteko eta berandu baino lehen egin behar delako. Andoni Barreñak aurreratu duenez, «joan den abenduaren 28an Durangoko Udalak adierazpen bat onartu zuen, alderdi politiko gehienek babesarekin, eta batzorde berezi bat sortzea erabaki zen. Udalak eta herriko elkarteek osatuko dute batzordea eta helburua da bonbardaketaren inguruan bide judizial bat hastea».

riko izeba horrek asko hitz egin zuen zuelako haurra zela nola jotzen zuen biolina. Haien etxean gerra aurretik ez zen biolinik eta ondoren bai. Eta gure etxekoa falta. Nik susmoa daukat hori gure osabarena zela».

ERBESTEAREN KARGA

Asko izan ziren, baina, gerra ostean Durangotik urruti bizi behar izan zutenak, ihes egin behar izan zutenak. Marina Fusterrek kontatzen du bere amonaren eta amaren erbeste istorioa, Benita Bollain eta Benita Uribarrena, hurrenez hurren. Estatu frantsesera ihes egin eta han egin zuten bizimodu, nahiz eta beti pentsatzen zuten laster Durangora bueltatuko zirela. «Nire aitona Santia-

go Uribarrena 1934ko grebarako prestatzen ari zen eta armak gordetzen ari ziren errekan. Aitonak trenbidean lan egiten zuen eta han sortu zitzaion langile kontzientzia. Familia karlista batetik zetorren, baina, aldiz, aitona sozialistagoa zen. Abenduko gau batean guardia zibila etxera etorri eta errekarera eraman zuen. Armak aterarazi zitzaizkion eta handik gutxira hil zen pneumonia batek eta disgustuak jota. Amona lau seme-alabaren kargu geratu zen. Hasiaren trenbideetako langileek lagundu zioten. Kontatzen zuen aitona hiletan «Durangoko lehen hileta zibila izan zen» langileek beroki bat zabal-zabal jarri zutela lurrean eta han jendeak dirua bota zuela, alargu-

nari laguntzeko. Baina gerora seme-alabak eskolatik atera eta lanean jarri behar izan zituen aurrera egin ahal izateko. Amonak kiosko bat zuen Durangon, idazten eta irakurtzen zekien eta emakume informatua zen. Errepublikazalea zen eta seme-alabei transmititu zien ikuspegi hori. Durangoko bonbardaketaren ondoren, Santi semea frontera joan zen eta Nati alaba Brigada Internazionalistetara. Ordurako biak Juventudes Comunistas-eko kide ziren. Amona eta beste bi alabak «tartean nire ama» Frantziara eramanak izan ziren «Habana» itsasontzian. Ez zeukaten ezer. Amak kontatzen du barkutik jaitsi eta lurra zapaldu zuenean, zapata bakarra zuela».



Uribarrena Bollain familia. DURANGO1936

UNAI ITURRIAGA

«DURANGO1936.ORG» WEB ORRIAREN EDUKIEN EDITOREA

«Jende horrek asko barkatu du, akaso gero ere bizi egin behar zelako»

Unai Iturriagak bi urte inguru daramatza Durango 1936 elkarteko kideek jasotako testigantzak txukuntzen eta editatzen. Berak dioen moduan, elkarrizketatuen esanak errepasatzea «nire zaharrak bisitatzea» bezalakoa bihurtu zaio.

«Hasieran enkargua liburu bat egiteko izan zen. Nigana etorri zirenean dagoeneko 60 bat elkarrizketa bazeuden eta nahiko garbi ikusi nuen web orrialdearen aukera. Liburu bat inprimatzen denean hor ezin da aldaketarik egin, ezin da testigantzarik gehitu edo daturik aldatu. Gainera, hainbeste jende elkarrizketatu eta gero beti bada borondatea jende horrek guztiak liburuan presentzia izatekoa. Eta hori oso zaila zen. Baina, batez ere, niretzako erreferentzia bat izan zen ‘ahotsak.eus’ webgunea eta horrelako zerbait egitea proposatu nien; Durangaldean gerrari buruzko testigantzak webgune batean jasotzea. Web orrialde bat moldagarriagoa eta zuzengarriagoa da. Materiala dagoeneko hor zegoen eta ni, nire edizio mailarekin, lanean hasi nintzen».

Azken bi urte hauetan Iturriaga testigantzak errepasatzen eta editatzen jardun da –eta bitartean elkartekoak testigantza gehiago biltzen–. Asteon aurkeztu dute emaitza: 75 elkarrizketa eta kasik bederatziehun bideo labur. «Batzuetan pertsona bakarra da elkarrizketatua eta bestetan, taldean aritzen dira, senitartekoak edo lagunak. Bilaketa egiteko modu bat baino gehiago dago: Elkarrizketatuaren arabera, herriaren arabera, aipatzen duen gertaeraren arabera, aipatzen duen biktimaren arabera... materiala modu desberdinetan sailkatu dugu eta bilaketa era batera edo bestera egin daiteke».

Elkarrizketatu bakoitzaren inguruko material osagarria ere badago; biografia, sententziak, familiako argazkiak, kausa generalak, frankistak herrien jabe egin ondoren egindako epaiketak... «kasu batzuetan informazio osagarri asko dago eta beste batzuetan, apenas. Bideoak ere desberdinak dira, badira 30 segundu irauten dutenak eta badira zortzi minutukoak, kontalariaren eta kontatzen duenaren arabera. Kontuan

izan behar da, gainera, jendeak memoriaren arabera berba egiten duela».

Web orrialdean, gainera, dei garbia dago informazio osatu nahi duenarentzat, informazioa zuzendu nahi duenarentzat, testigantza berriak ekarri nahi dituenarentzat... «oso garbi daukagu web orrialde hau beti egongo dela martxan, ez duela behin betiko bertsiorik izango, beti joango baitaosatzen».

ZER GUTXI DAKIGUN, ZER GUTXI KONTATU DEN
«Beti interesatu izan zaidan gaia da. Testigantza asko ikusi ditut, eta oso gogorrak, baina asko ikasten da. Bideo elkarrizketak ikusi ahala ohartzen zara zer gutxi dakizun eta zer gutxi kontatu den. Hemen agertzen den jende askori inork inoiz ez dio ezer galdetu. Kasu askotan hildako edo desagertutako errepresaliatu hori egitura politiko eta sindikaletako kidea izan zen eta horregatik zigortua izan zen. Ez alderdirik ez sindikaturik ez da hurbildu, gerora ere, ezer galdetzera. Hori askotan errepikatzen den gauza bat da: ‘Inoiz inor ez da etorri’. Gerraren gordintasuna ere oso agerian geratzen da testigantza horietan. Eta gerraren ondoren etorri zen gerra ostearen laztasuna ere ageri da. Lapurretak, umiliazioak, euskararen gaineko debekua...».

Iturriagaren esanean, web orrialdeak beste erronka bat jartzen du mahai gainean; «1936an hasten da, baina noiz arte luzatzen da? Bada testigantzaren bat 1975. urtera iristen dena. Horregatik diot web orrialde hau ez litzatekeela inoiz amaituta egon behar».

Durangarrak garbi dauka, gainera, ikusentzunezko-bankuan bildutako materialak arlo askotan sortu dezakeela interesa; «historiagileentzat interesgarria da, fikzioa egiteko sekulako materiala dago, errepresaliatuen senideentzat haiek errekonozituak izateko modu bat da, eskoletan erabil daiteke... niretzako sekulako poza izan da web orrialde hau egin ahal izatea eta egiten segitzea. Nire herriari buruz ari naiz eta nire herria hobeto ezagutzen eta ulertzen lagundu dit».



Aritz LOIOLA | ARGAZKI PRESS

Testigantzak ikusi dituenari segituan sortzen zaio gogoeta: Zenbat isildu den, beldurratik edo bakeagatik. «Niretzat elkarrizketak ikusita harrigarria da zer errespetuz tratatzen den gaia, zer mira dagoen ondorengoekiko. Are gehiago besteek batere izan ez dutenean. Ez bakarrik gauza potoloak kontatzeko, gauza txikiak kontatzeko ere sekulako kontua izaten dute. Nire ustez, gehiegizkoa. Baina horrek adierazten du nik bizi izan ez dudan errealtatea bat dela. Jende horrek asko barkatu du, akaso gero ere bizi egin behar zelako. Beste aldean ez dago horrelakorik. Oso hizlari gutxi daude jendea izenez kontzienteki aipatzen dutenak. Batzuek norbait aipatzen dute eta kentzeko eskatu dute gerora. Gutxi batzuk badaude, hala ere, izen-abizenez identifikatzen dituztenak erasotzaileak. Baina, orokorrean,

ikaragarritzko errespetua dago, itzela». Testigantzetan, gerraren eta gerra ostearen gordinaz hitz egiten da, baita desjabetzeaz eta lapurretez ere, gutxitan agertu den gaia. «Bonbardaketa eta gero batzuk nahiko azkar bueltatu ziren Durangora, eta bere gauzen bila hasi ziren, alferrik gehienetan. Gauza oso miserableak gertatu ziren. Batek kontatzen du etxe batera joan eta koadro bat ikusi zuela paretan, eta oso ezaguna egiten zitzaiola. Horrela konturatu zen bere jaunartzeko koadroa zela. Argazkia aldatu zioten, baino markoa berea zen. Beste batek kontatzen du Durangora bueltatu zirenean auzokoaren alaba ikusi zuela bere erroparekin, eta isilik egon behar».

80 urte baino gehiago pasatu dira ordutik. Gehiegi. Baina orain, behintzat, kontatu ahal izan du.

KONTAIGUZU:
NOLA METATU ZENUEN
ZURE DIRUTZA HORI?

HARREMANAK
BALIATUZ?

EGIA ESAN,
ENTXUFEEI ESKER
ETA KOLPERIK
JO GABE

EZ, EZ...
ZUEN GUZION ETXEETAN
JARRITAKO ENTXUFEEI ESKER.
ELEKTRIKA GUZTIETAKO
ADMINISTRAZIO KONTSEILUETAN
JARTZEN DUT IPURDIA.



EXPRAI
2017



EXPRAI

iRRITZIA:

LANKIDETZARAKO GIDA

Gaztaroko artritis idiopatikoa duten ikasleen bizi-kalitatea hobetzeko gida

 **OSASUNA /** Xabier Izaga Gonzalez

Oso hedatuta dago gaixotasun erreumatikoez helduei erasaten dieten us-tea, eta hala da nagusiki. Baina helduaroan ez ezik, beste edozein adinetan ere has litezke. Adituek nabarmen-tzen dutenez, 1.000 haurretik batek edo bik izango dute gaixotasun erreumatikoren bat, eta ohikoena gaztaroko artritis idiopatikoa da. Jatorri ezezaguneko gaixotasun erreumatiko hori sistema immunitarioaren asaldura batek eragiten du. Asaldura hori gauzatzean, faktore inflamatorioak sortzen ditu, kantitate desorekatu, neurritz kanpoko eta kontrolik gabekoetan. Ondorioz, artikulazioak estaltzen dituen mintz sinobiala handitu egiten da, gehiegizko likidoa agertuz, "isuri" izenekoa.

Gaztaroko artritis idiopatikoa 16 urte arteko pazienteetan diagnostikatzen da, artikulazioen batean artritisa dagoenean (mintz sinobialaren hantura), gutxienez sei aste irauten duenean eta bestelako motiboak baztertu direnean. Diagnostikoa egitea ez da erraza, ez baitago metodo zehatzik eta sintomamultzoei jarraitu beharra baitago. Gaixoak artikulazio baten edo gehiagoren mina, hantura eta mugikortasun murrizpena izaten ditu, eta, sarri, beheko gorputz-adarretako mugikortasun murrizpena dela eta, errenka ibiltzen da, edo ez du ibili nahi izaten. Hanturak irauten duen bitartean, artikulazioek osatzen dituzten egituren lesio-arriskua dago; horregatik, oso garrantzitsua da diagnostiko azkarra eta gaixotasuna tratatzea epe luzeko bilakaerarako.

LANKIDETZA, FUNTSEZKOA

Ikerkuntzak gaztaroko artritis idiopatikoaren ondorioak arindu egin ditu, gero eta baliabide terapeutiko hobeak lortuta; hala ere, maiz sintomak garbi sumatzea ez da erraza izaten. Bestetik, gaixotasunak haurrengan eta euren familiengan duen eragina latza da, haien bizimodu nabarmen baldintzatzeraino. Etxean eta etxetik kanpo.

Gaztaroko artritis idiopatikoari modu integralean aurre egiteko, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratuak eta Lakuako Hezkuntza Sailak gida bat jarri dute irakasleen eskuetan. Helburua argia da: gaixotasun hori duten ikasleen integrazioa eta parte hartzea erraztea.



Goian, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako Erakunde Sanitario Integratuko kartela. Gaztaroko artritis idiopatikoa edozein adinetan has liteke. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

Horregatik, gaztaroko artritis idiopatikoari modu integralean aurre egiteko, funtsezkoa da ikastetxeekin batera lan egitea, gaixotasuna duten ikasleek nola ikasgelan hala eskolako kirolean integrazteko behar dituzten egokitzapenak eskura izan ditzaten, aldi baterako edo beti.

JARRAIPENA HOBETZEKO GIDA

Horiek guztiak aintzat hartuta, paziente eta familien beharrei erantzuteko eta familiaren eta eskola esparruaren lankidetzatratamenduaren parte dela ulertuta, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratuak eta Hezkuntza Sailak gaztaroko artritis idiopatikoari buruzko informazio triptiko bat eta gida labur bat egin dituzte, hainbat osasun profesionalekin eta hezkuntzako aholkulariekin elkarlanean. Triptikoak eta gidak, gaixotasunari buruzko informazioa, aholku orokorrak eta ikasleen inklusioa eta parte hartzea errazteko ariketak biltzen ditu, hezkuntzako profesionalek, gaixotasuna duten ikasleen eragozpenen jakitun, haien bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

Ezkerraldea-Enkarterri Gurutzeta Erakunde Sanitario Integratuak prebentzioa eta lankidetzatratamenduko premia nabarmendu ditu: «Erakunde Sanitario Integratuaren eta Osakidetzaaren estrategiarekin bat dator ildo hau; hartara, gure eragin-eremuko eragile ezberdinen arteko lankidetzatratamendua eratu da biztanleen osasunaren determinatzaileen aurrean. Horri esker, osasun sistema erabiltzen dutenen gainera jarduketetan parte hartu ez ezik, jarduketa hori handitu ere egin nahi dugu osasunean eragiten duten beste eragile eta erakunde batzuekin koordinazioa eta lankidetzatratamendua bilatuz».

Osasun zein hezkuntza arduradunek diotenez, profesional sanitarioek eta hezitzaileek batera lan eginez tresna baliagarriak sortuko dituzte, bai gaztaroko artritis idiopatikoa edo bestelako gaixotasun kroniko pediatrikoen diziiplina anitzeko arreta errazteko, bai heziketa inklusiboagoa lortzeko.

Pentsatu, sentitu, ekin

Antton Izagirre

Goizeko zazpiak, erosketak egiteko kutxatilara noa. Kutxatilak eskatu diodan dirua igorri dit. Alboan, gaua han pasa duen etxegabea. Kartoi eta manta artean ez du gorputzik ageri. Ez buru, ez aurpegi, ez nortasunik, ez du ezer erakusten. Han geratu da lo. Gosaria hartzera hurbildu naiz kafetegira, irudi hura buruan kolpeka.

Egunkarietan, egun hotz batean, otordu bero bat hartzeko zain errefuxiatu ilara luzeak ageri dira. Egunak eta egunak pasa, hor jarraitzen dute. Irudi lotsagarriak. Iru-diak dira, estampa larriak. Irudiaren atzean gizakion duintasuna hankaperatua. Kalean gutxi hitz egiten ari da.

Bestetik, gure herrian guztion ahotan dabilta dendetako erakusleihoetan, propaganda sexista salatu asmoz, zenbaitek egin dituzten pintaketei buruzko iritziak. Alde edo kontra, iritziak bor-bor.

Zer da, beraz, gai bat nagusi egiten duena eta besteak ikusezin? Gaiaren larritasuna? Gertutasuna agian? Bitartekoak? Ala gaien gaineko juzkua eraikitzeke edo balioesteko erabiltzen ditugun zentzuen galbahea?

Zenbaitetan film bateko fikzioan sorturiko gertaera batek malkotan jarri gaitu, eta, aldiz, egunero errealitatean begi bistan ditugun gertaera larriek hotz eta indarge utzi izan gaituzte. Non datza indargunea?

Segur aski, edukia ez baina komunikatzeko modua da mezua. Badira albiste batzuk arrazoiaren galbahetik pasarazten ditugunak edota emozioen kordei dar-dar eginaraziz hunkitzen gaituztenak.

Eta ekintzarako bulkada nagusia, arrazoiak ala emozioak eragiten du?

Hitzetatik ekintzetarako jauzian pentsatu eta sentitzeko gaitasunaz gain, Mikel eta Begok, Grezian, eta Bakearen Artisauak, Luhuson, azkenaldian gure gizartean lozorroan eta hankamotz ziruditen beste balioak erakutsi dizkigute: elkartasuna eta konpromisoa. Pentsatu, sentitu eta ekin, bata bestearen osagai. •

Negarra ez dadila honengatik gehiago izan

Miren Azkarate

Kalera kalera borrokalari kalera, hire indarraren beharra diagu, gure indarrarekin batera». Horrelaxe dio abestiak. Amak kontatu dit bi urte nituenean manifestazio batean abesten ari zirela egin nuela lehen aldiz negar. Eta orduz geroztik entzuten dudak bakoitzean egin dudala. Badu zeozer, ez dakit zer...

Pasa den hilean maiz entzun dudak abestia da, Kalera Kalera dinamika dela eta; pentsa, beraz, zenbat negar egin dudak! Baina kasu honetan ez da abestiagatik bakarrik izan. Preso eta iheslari politiko ohiok aurrera eraman dugun ekimenak berak izugarri hunkitu nau, eta, une askotan, pozez eta tristuraz, malko batzuk isurarazi dizkit.

Kalera ateratzera erabaki genuen gurekin falta ditugun lagun eta kideak ere kalera

ateratzeko. Eta horretarako hainbat belau-nalditako pertsonak elkartu ginen, errealitate eta bizipen oso ezberdinetatik gentozenak, nahiz eta batek batzen gintuen... Hunkigarria! Aspaldi ikusi gabeko kideak, eta, lehen aldiz, Itziarrek semeak izateaz gain alabak ere izan dituen aldarri ozena. Momentu ahaztezina!

Asko dute esateko Usurbilgo gunek emandakoak eta hainbat herri eta auzotan antolaturiko ekimenek, baina zutabe hau ez da nahikoa horretarako. Dinamika abiatu eta astebetara Bilboko manifestazio erraldoia ikusi genuen. Beste urte batez milaka herritarrek eskaera bera egin eta, hau azkena izan dadin esperantzan, hotzari, euriari eta gainontzeko oztopoei aurre eginez buruz dakiten ibilbidea burutu zuten. Barruan

pasatako urteak eta bertan txikitatik bizi ditudan nahastuta, hemen ere begiak bustita. Zergatik? Ez dakit azaltzen.

Baina hil honetan negar eginarazi didana, eta erruz gainera, Izarri, Sarari eta etxekoei gertatutakoa da. Ez naiz ur handitan sartuko, asko idatzi baita gaiaren inguruan eta dena esana dagoela iruditzen baitzait. Baina Sara kide izan nuen espetxean, eta laguna dut. Horren batura, egoera jasangaitza egiten zaidala. Beraz, eta bukatzeko, nire indar guztiak eta maitasun zakukada bat Izar, Sara eta senideei. Eta kalera kalera ez, ekarri ditzagun behingoz eta bizirik denak etxera!

Norbait pentsatzen has dadila «etxean daude» dioen kanta bat... Negar egiten jarraituko dut, baina pozez soilik. •



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Alfabetoak

Alfabetoak hizki gehiegi zeuzkala iruditzen zitzaidan umetan; «A» eta «B» banekien non kokatu baina nire hiztegian ez zegoen «C» zeraman hitzik. «Ñ»-arekin izaten nituen kome-riak, bazirelako nire izeneko hirugarren hizkia onartzen ez zuten teklatuak eta «zergatik» galdetzen nien gurasoei, zergatik ingelesek ez zeukaten «Ñ»-rik. Eta hizkuntzez ariko zitzaizkien nire belarri heziga-beei, baina nik ez nien tutik ere ulertzen: zabala zen nire mun-dua orduan, Añorgan hasi eta bukatzen zena, eta hizkuntza bakarra aski zitzaidan hura bizitzeko.

“Avenida”. Izen horretan kokatu nuen lehenengo aldiz “V”-a. Ez zen “etorbidea”. “Avenida” zen Donostiako kalerik doto-reenaren izena, banketxeak zeuden gunearena. Gogoan dut beti jakin-minez etortzen ginela hona, eta arraro begiratzten geniela pelikularen batetik atereak ziruditen trajedun eta gorbata-dunei. Gurasoak normalean baino isilxeago etortzen ziren “enkarguak” izeneko zeraren zerako zera horiek egitera, guk irakaslearenga-na hurbiltzeko eramaten ge-nuenaren antzeko pausajea-rekin. Niri arraroa egiten zitzaidan kale hau izenetik beretik hasita; lekuz kanpo sentitzen nintzen artean ulertzen ez nituen motibo-engatik.

Bizitzan, ordea, batzuetan une labur batzuk aski izaten dira alfabetoak hankaz gora jartzeko. Umetako gaixoaldi luze batean ospitaleko gela batean mugitu zitzaizkidan hizkiak lehenengo aldiz. Medikua bat etorri zen nola ote nengoen galdezka, baina nik gazteleraz ez neukan aski zehaztasun nire minaren nolakoa azaltzeko. Amari euskaraz azaldu eta hark egiten zituen itzultzaile lanak. Medikua ea eskolatua al nengoen galdetu zuen eta baietz erantzun zion amak: eskolatua nengoela baina euskaraz egiten nuela lagune-kin, euskaraz etxean eta euskaraz klasean: gazteleraz irakurtzen banekiela eta be-rak esandakoak ulertzen ni-tuela, baina hizketarako ja-rriorik ez neukala. Eta ez kezkatzeko ere esan zion, zortzi urterekin jakin ez

arren, bizi ginen lekuan bizita, derrigorrean ikasi beharko nuela. Medikuaaren erruki begiradarekin akordatzten naiz oraindik.

Eskola handi batean hasi ginen handik urte batzuetara. Klaseak euskaraz izan arren, han ezagutu nituen lehenengo aldiz gazteleraz funtzionatzen zuen patio bat, pilotan euskaraz ari-tzen ziren lagun batzuk eta euskarazko musika eta liburuak iraungitako mundu baten azken aztarnatzat hartzen zituzten klasekide batzuk. Euskaraz hasi orduko barre egiten ziguten; “baserritarra” esaten zioten bertso eskolan zebilen edozein ka-lekumeri eta “aspergarria” euskarazko CD bat motxilan zera-man edonori.

Eta gu ere nahasi ginen nerabe garaiko joera haiekin: guk ere ikasi genuen onartuak izateko besteak bezalakoak izan behar genuela; bizitzan gora egitea esaten zaion hori lortzeko hobe genuela gure umetako ahoskera ezkutatzeari; «guayagoak» ginela gaz-teleraz; irekiagoak, moder-noagoak, erakargarriago-ak. Ez dakit nerabezaroko konplexuak denok gaindi-tu ote ditugun.

Eta hemen nago gaur, “V” eta guzti “Avenida” deitzen diogun kale honetan. Star-bucks bat zabaldu berri dute: kafea kartoizko edalontzi berdeetan eta kartoizko lan-kontratuak barraren beste al-dean. McDonald’s bat bada Bretxan; Burger King bat ere bai Bulebarrean. Laster Mer-cadona bat ere izango omen dugu Añorgan. Guk egindako hiriek egiten omen gaituzte gu ere modu batean edo bes-tean, baina ez dakit bada: “nortasuna” hainbeste aipa-tzen den garaiotan geroz eta antzekoagoak dira gure jan-tziak: hiriena, alfabetoare-nak eta gureak. Aspaldiko mediku haren begirada ha-rroarekin akordatu naiz, mundu guztiak bere hizkun-tzan egiten zuela uste zuena-ren begirada harekin. Eta ni-ri barrez hasten zirenero, oharkabean, beren konple-xuak estali nahian aritzen zi-ren klasekideekin ere bai. Ez baitago zabaltasuna imita-zioarekin nahastea baino gauza itxiagorik. •



«Avenida» deitzen diogun Donostiako kalean Starbucks bat zabaldu dute.

{ koaderno } **Amaia Nausia Pimoulier**

Osasunarik gabe bihotza osasuntsuago

Atzo lagun min batek esan zidan haurtzar-
roan hartzen dugun lehenengo erabakia
dela zein futbol talde izanen den gurea
eta hor pizten dela betirako iraunen
duen konexio emozionala. Agian horrela
gertatu zitzaidan niri.

Gogoan dut aitak nola kontatzen zigun Osasunako
kategoria gazteetan egindako ibilbidea eta belauna
apurtu zuenean nola utzi behar izan zion futbole-
an aritzeari. Haurtzaroko larunbat asko pasa nituen Na-
farroako futbol zelaietan barna nebaren futbol parti-
dak ikusten edo aitaren herritik Iruñera bueltan bide-
an igandeko emaitzak entzuten irratan. Nire burua
ikus dezaket aitaren belaunetan eserita Sadarren par-
tida ikusten, nerabezaroan gaztetxoaren harmailetan
edota ia 14 urtez bazkide
moduan izan nuen eserle-
kuan eserita kuadrillakoe-
kin larunbateko parranda
komentatzen Osasunak jo-
katzen zuen bitartean.
Oroimen asko Osasunari
lotuta, bazkariak eta afa-
riak partida aurretik eta
ondoren, lagunekin egote-
ko momentuak... Agian
Osasunarengan pentsatze-
ak bizipen horiek guztiak
pizten dizkidalako zaila
egin zait 34 urteko harre-
manarekin moztea.

Deskonexio arrazionala
errazagoa izan da. Esate ba-
terako, zorraren eta partiden erosketaren kontua argi-
taratu zenean, beste bazkide askok bezala, amorrua
sentitu nuen, noski. Baina aspaldi da ez niola zentzu
gehiegirik hartzen futbolaren industriari. Kuadrilla-
koekin eztabaidatzen nuen aldiro arrazoia ematen
nien; pribilegiatuen kirol bat bihurtu dela futbola, hi-
perkapitalismoa bultzatzen duen industria bat dela,
matxista, homofobia eta arrazista kasu askotan.
«Baietz, baietz» esaten nien, «baina niretzat Sadarrera
joatea kontu emozionala da, identitate bat, sentimen-
du bat».

LOTURA EMOZIONALA HAUSTEN JOAN DA

Lotura emozional horrek denbora luzez hor jarraitu
zuen, baina konexio hori indarra galduz joan da eta
pasa den asteburuan gertatukoak desconexioaren bi-

dea azkartu duela esanen nuke. Sevillako jarraitzaile
batzuek “GORDO” zioen pankarta zintzilikatu zuten
sanferminetako ustezko bortxatzailearen alde. Egun
horretan, hain zuzen ere, Osasunak eta Indar Gorrik
Burlatan eraila izan zen Blanca Estherren kasuaren
harira indarkeria matxistaren kontrako pankartak
atera zituzten. Eta, Sevillako zale batzuen jarrerak, Es-
painiako Ligako lehendakariaren hitzek edo Sevilla
futbol taldeko lehendakariaren hitzek sortzen didaten
nazka eta amorrua sentitzeaz gain, Osasunarekiko se-
kulako hutsune emozionala sentitu dut. Koherentzia
falta eta hipokresia gehiegizkoak egin zaizkit.

Oso ongi dago indarkeria sexualaren kontra era-
kunde moduan egindako keinu hori –eraso sexisten
kontrako pankarta jarri eta Ligaren aurrean Sevillako

Ez dut gustuko futbolak hartu duen bidea
eta ohartzen naiz gaur egun gizon eta
emakumeon aldeko berdintasunaren alde
egin beharrean, kontra egiten duela.
Emakumeen kontrako indarkeria ez da
pankarta batekin bakarrik borrokatzen

zaleek jarritako beste hori salatu-, baina, non geldi-
tzen da parekidetasun politika Osasuna bezalako era-
kunde batean? Futbol maskulinoak diru laguntza na-
gusiak eta atentzio mediatikoa jasotzen dituen
bitartean, emakumeen lekua guztiz baztertuta geldi-
tzen da kirol horretan.

Ez dut gustuko futbolak hartu duen ibilbidea eta
ohartzen naiz gaur egun gizon eta emakumeon alde-
ko berdintasunaren alde egin beharrean, kontra egi-
ten duela. Emakumeen kontrako indarkeria ez da pan-
karta batekin borrokatzen, ez soilik behintzat.
Berdintasunaren aldeko politikak bultzatu behar dira
eta futbolaren industriak hori egiten ez duela agerian
dago. Hori horrela izanda, zaila egiten zait eredu hori
defendatzen duen talde baten zale izaten jarraitzea.
Gaur bihotza zertxobait arinago sentitzen dut. •

«Arabako gazte euskaltzaleen sare bat sortu nahiko genuke elkarlana sustatzeko»

Gaur Arabako gazte euskaltzaleak bilduko dira Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean.

Bertan egingo da “Arabarra, gaztea eta euskaltzalea. Bai eta zer?” topaketa, herrialdeko kuadrilla ezberdinetako gazte euskaltzaleak biltzea xede duena, elkarri herrietan antolatzen dituzten euskararen aldeko ekimenen berri eman diezaioten. Unai Vianak topaketaren antolakuntzan parte hartu du. Azaldu duenez, deialdi zabala egin zaie herrialdeko gazte euskaltzaleei. Izan ere, Euskaltzaleen Topaguneak adierazi duen bezala, Araban badaude euren euskaltasunaz harro egoteaz gain, euskararen egoerarekin kezkatuta izanik gauzak hobetzeko elkartu eta ekimen ezberdinak antolatzen dituzten gazteak.

Herri asanblada, jai batzorde, aisialdi talde, euskara talde, kultur talde, institutuko batzorde eta antzekoetan elkartzen dira gazteok eta bakoitzak bere inguruan euskararen erabilera indartzeko lan egiten du. Herriz herri egiten den lan hori guztia azaldu eta harrotasun eta poztasunez zer diren eta zer egiten duten adierazteko aukera izango dute gazteok topaketan. Goizeko saioa 10.00etatik aurrera egingo da, eta, eguerditik aurrera, jai giroa nagusituko da gazte-txean. Bertan bazkaria eta kontzertuak egongo dira Orbanak, Odolkiak eta Tinkoren eskutik.

Arabako gazte euskaltzaleen topaketa antolatu duzue Oihaneder Euskararen Etxean, nola sortu zen ideia?

Aspaldiko ideia da. Aurten beste lagun batekin hitz egin eta aurrera eramatea lortu dugu. Helburu zehatzik gabe, aurreikuspen askorik gabe. Nahi duguna da gauza xume bat antolatzea, non Arabako herri ezberdinetako jendea elkartuko den, non

euskararen ildoan lan egiten duten gazteak elkar ezagutuko diren.

Arabaren euskararen alde egiten diren gauzak ikusi nahi ditugu, esperientziak partekatu. Eta, nola ez, ondo ere pasa nahi dugu. Herrietan euskararen aldeko ekimenak antolatzen ditugun gazteok bilduko gara, eta disfrutatzeko eguna izango da, beste lekuetan ere ekimenak antolatzen direla eta bakarrik ez gaudela ikusteko aukera. Eta gero, elkarlanean zerbait sortzea lortuz gero, kristorena litzateke.

Zortzi kuadrillek osatzen dute Araba. Kuadrilla guztietako euskaltzaleak bilduko al dira gaur Gasteizen?

Ez, tamalez ez dugu lortu. Trebiñutik ez dugu lortu inor etortzea, ezta Añanatik ere. Pena handia da, baina ez dugu lortu. Beste kuadrilletatik bai etorriko direla gazteak.

Nola jarri zarete harremanetan kuadrilla ezberdinetako euskaltzaleekin?

Harremanetan jartzeko kontaktua ni neu izan naiz. Lehenik eta behin ezagutzen nuen jendearengana jo dut, eta gero jende horri beste euskaltzale batzuen kontaktua eskatu diet. Adibidez, lehen ez nuen Arabako Errioxako kontakturik eta orain baditut nahikotxo. Prozesu polita izan da, ez bainuen ezagutzen bertako errealitatea eta orain beste bost lagun berriekin bainago kontaktuan. Etorriko dira Gasteizera eta aurkeztuko dituzte Arabako Errioxan egiten dituzten ekimenak.

Eta Gasteizen egiten diren proiektu ugari ere ezagutu ditut, ezagutzen ez nituenak. Niretzako polita izan da proiektuok ezagutzea, eta uste dut guztiontzako izango dela polita proiektu guztiok ezagutu ahal izatea topaketaren egunean. Gauza asko egin ahal direlako euskara sustatzeko, eta topaketa ideiak hartzeko gune aproposa izango delako.

Halaber, aurten aukera izan dut Arabako institutuetako euskara batzordeetako kideekin lan egiteko eta haien harrera oso

ona izan da. Hala, Euskararen Etxera aurkezpen bat egitera etortzera animatu dira. Egiten duten lanari buruzko informazioa emango digute. Horregatik uste dut garrantzitsua litzatekeela gaztetxo berriak ere agertzea topaketara, nahiz eta bakarrik entzutera etorri. Ziur zerbait ikasteko aukera dutela. Inportantea da jakitea institutuetan nola egiten duten lan gaztetxoekin, laguntzeko edo gure esperientzia beraiekin partekatzeko.

Bakoitzak bere esperientzia, bere herrian egiten den lana azalduko du. Zer-nolako ekimenak aurkeztuko dira?

Askatasuna eman diegu parte hartuko dutenei. Betiko ereduak apurtu nahi ditugu: ez dugu txapa luzerik nahi, ezta oso didaktikoak diren hitzaldirik ere. Zerbait hurbila egin nahi dugu, bakoitzak bere herrian euskararen alde egiten den ekintza edo egitasmoren bat aurkeztea. Batzuek kontatuko digute zer egiten duten Euskararen Egunean, eta beste batzuek urtean zehar jarraitzen duten plangintza azalduko digute, astero egiten dituzten gauzak erakutsiz. Askok umeei zuzendutako jarduerak antolatzen dituzte eta beste batzuek ekimen kulturalak. Denetarik dago, eta polita izango da, bi aurkezpen berdin egongo ez direlako. Antzerkia egiten duten gazteak egongo dira, buruhandiak, Mairuregorretakoak... helburua da nahasketa apur bat izatea. Eta dena modu hurbil batean. Izan ere, eskatu zidatena ekimen original eta natural bat prestatzeko izan zen. Eta ez dut jardunaldi bat prestatuko inor aspertzeko. Oihanederren egongo den publikoa nahiko gaztea izango da eta helburua da topaketa dibertigarria izatea.

Topaketan hitz egingo dutenei amaieran euren asmoak azaltzeko eskatu diet. Agian batzuk egingarriak izango dira eta beste batzuk ez, baina gogo edo erronka horiei buruz eztabaidatu nahi dugu, posible diren ala ez ikusi; agian herri batekoek proposatzen dutena egin dute jada beste herri batean. Gauza positiboak kaleratu nahi ditugu.

UNAI
VIANA

GAZTEA ETA EUSKALTZALEA

«Arabarra, gaztea eta euskaltzalea. Bai, eta zer?» topaketaren antolakuntzan parte hartu du Vianak. Gaur egingo da, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean.

Ion Salgado



Zaila da euskara sustatzeko ekimenak aurrera eramatea Arabako herrietan?

Bai, halako ekimenak burutzea ez da erraza, lan asko egin beharra dago. Eta batzuetan ez dira betetzen dituzun aurreikuspen edo helburuak. Horregatik uste dugu ekimenon beste ezaugarri batzuk ere aztertu behar direla. Nahiz eta bi lagun agertu, ikusi behar dugu nolakoa izan den ekimena. Zerbait berria ikasi badugu edo agertu diren bi pertsonak pozik joaten badira etxera ontzat hartu behar dugu, eta errepikatu. Eta jende gehiago etortzen bada, askoz hobe.

Zein da zuen asmoa, kuadrillen arteko elkarlana bultzatzea?

Bai, asmoa da elkar ezagutza bultzatzea, eta, etorkizunera begira, sare bat sortu nahiko genuke, momentu honetan ez dagoen sare sendo bat osatzea, elkarlana sustatzeko. Niri ideia bat gustatu bazait, beste herrietako jendearekin hitz egin ahal izateko, nola antolatu duten ikusteko. Askotan ez baitugu kontuan hartzen ondoko herrietan egiten diren ekimen arrakastatsuak; guk informazio sare bat sortu nahi dugu.

Eta gure helburua, topaketa antolatzen dugunon helburua, zubi bat izatea da. Aurrera begira edonork zerbait behar badu, nirekin hitz egin dezake eta lagunduko diogu. Ez dugu helburu zehatzik ezarri nahi, baina polita izango litzateke euskaltzale gazteen arteko harremana finkatzea. Gazteek inplikatu nahi dute, baina askotan jakin behar dute zer egin. Eta haiei giltzak eman behar dizkiegu beraiek jakiteko nondik nora joan edo zer egin.

Nire ustez, euskararen arloan helburu handiak finkatzeak ez du inongo zentzurik. Gauza egingarriak bultzatu behar dira. Pauso txikiak emateko balio dutenak. Kristoren jaialdi edo topaketa egin nahi badut eta emaitza txarra bada, erre egingo naiz; igual hurrengoan ez dut ezertxo egingo. Eta kontrakoa, antolatzen badugu gauza txiki bat daukagun baliabideekin eta ditugun aurreikuspenak bete-



Argazkiak: Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

«Zerbait hurbila egin nahi dugu. Bakoitzak bere herrian euskararen alde egiten duten ekintza edo egitasmoren bat aurkeztuko du»



tzen badira, ederki. Ideia hori kontuan hartu behar dugu gazteekin lan egiterakoan. Saiatzen dira gauzak egiten eta traben aurrean erre egiten dira eta askotan pentsatzen dute ez duela pena merezi. Gazteok kontrakoaz konbentzitzen saiatu beharra dugu. Ezer gutxi lortzen badute ere, pauso handia izango delako.

Ideia polita dela errepikatu duzu, aurretik halako ekimenak egin al dira?

Araba mailan guk uste dugu ezetz. Igual saiakerak egon dira, baina printzipioz nik uste dut ezetz. Eta egiten dugu Araban posible delako. Euskal Herriko beste leku batzuetan zailagoa izango litzateke, biztanle askoz gehiago dituztelako. Araba, Gasteiz izan ezik, herri txikiek osatzen dute. Herriak antzekoak dira, eta, aldi berean, bereziak. Arabako Errioxakoak zein Gorbeialdekoak berdinak gara, baina gure berezitasunekin.

Gure nahia saiakera xumea egitea da, eta emaitzaren arabera ikusiko dugu hemendik aurrera zer egiten dugun. Ikusi beharko dugu ea aukera dagoen zerbait gehiago antolatzeke topaketa honi jarraipena emateko. Autokritika egin beharko dugu, topaketan parte hartzen dutenen balorazioa aztertu, hobetzeke eta ikusteko zer aldatu behar dugun etorkizunean.

Euskaltzaleen Topagunearen laguntza izan duzue.

Komunikazio lanetan lagundu gaituzte: bideoa eta kartelak egiteko, Oihaneder Euskaren Etxea hartzeko, bertan erabiliko den ekipoa ordaintzeko... Bidea zabaldu digute. Topagunea da proiektu honetan sinesten duen bakarra eta laguntza eman digun bakarra. Baina nik beti esaten dut topaketak zentzua izango duela autogestionatua den bitartean. Topaketan parte hartuko dutenak datoz beraiek nahi

dutelako eta nik nahiko nuke gerora ere horrela jarraitzea. Nire ustez, proiektu polita da, eta aukera dugu Arabako gazte euskaltzaleek osatzen duten taldea sendotzeko. Zortzi talde izan beharrean, bat izateko. Denok bide berdinetik joateko.

Arabako gazte euskaltzaleak Oihanederren bilduko diren honetan, nolakoa da hizkuntzaren egoera herrialdean?

Lan handia egiten ari gara euskara Araban sustatzeko. Nik zorionez aukera dut gazteekin lan egiteko, eta, nire belaraldiarekin konparatuz, aurrera egin dute, euskara gehiago erabiltzen dute. Dena den, argi dago euskararen inguruan pauso oso txikiak eta oso motelak eman direla, baina, nire ustez, atzera ez bagoaz positiboa da. Ari gara hobetzen eta Araban kristoren lana egiten ari gara. Hori harro sentitzeko modukoa da. Eta hori lortu dugu gure atzeko belau-

naldiek egindako lanari esker. Gaur egun euskararen sustapena beste gazte batzuen esku dago eta nire ustez hizkuntza hobera doa. Errealitate ezberdinak daude, eskola ezberdinak eta leku ezberdinak, baina orokorrean jarrera positiboa da, euskararen aldekoa. Baina trabak egon badaude. Zoritxarrez, zailagoa da euskaraz kultur ekimenak burutzea erdaraz, ingelesez edo beste mila hizkuntzatan baino.

Trabak daudela diozu, zer-nolako trabak? Zerk oztopatzen du euskararen sustapena, euskararen erabilera Araba?

Gizartean ekoizten denaren %95 erdaraz egiten da. Ume eta gazteengana heltzen diren produktuak ez dira euskarazkoak. Eta euskaraz ekoizten diren produktu kulturalak bilatu egin behar dira. Badaude baina ez dituzu jasotzen, bilatu egin behar dituzu. Besteak, gaztelaniaz direnak esaterako, nahitaez jasotzen dituzu, telebistan esaterako.

Umeak esponjak bezalakoak dira, barneratzen dute telebistako edozein programan ikusten dutena eta hori eramaten dute gero klasera; hala, hizkuntza hori, gaztelania, erabiltzen dute naturaltasunez. Askotan kostatu egiten zaie euskara erabiltzea, baina, zorionez, batzuek behintzat aldatzen dute txipa. Gero eta gehiago dira euskara erabiltzen duten eta euskaraz bizitzeko gogoia dutenak.

Eta gure lana beharrezkoa da txip hori aldatzeko, ekimenak egin behar ditugu eta hor egon behar dugu lanean haur eta gazteek euskara bere egiteko. Beraienez oso erraza baita erdaraz bizitzea. Ez dute ikusten euskaraz bizitzeko behar hori.

Nola egin diezaiokegu aurre egoera horri? Zer egin dezakegu Arabako gazteek eta Euskal Herriko beste lekuetako gazteek euskara erabiltzeko?

Kontzientziazioa funtsezkoa da. Jendea geureganatzen saiatu beharra dugu, gazteak gureganatzen, jakinda euskara gure kulturako altxorrik garrantzitsuena dela. Euskal Herrian kultura oso aberatsa dugu, eta guk geuk ba-



bestu, ekoiztu eta indartu behar dugu. Eta gazteek bereganatu egin behar dute. Urte askotan egindako lanak jarraipena behar du: hizkuntza galtzeko arriskuan egon daiteke hurrengo belaunaldiaren babesa ez badu. Globalizazioak ingelesa eta gaztelera babesten ditu, eta guk defendatu behar dugu euskara.

Azaldu duzu zer egin dezakeen gizarteak. Amaitzeko, zer egin dezakete erakundeek?

Lehenik eta behin, hizkuntza politikoki ez erabiltzea. Hizkuntza kultura da, hizkuntza gurea da, eta erakundeek hori babestu behar dute. Ez dute erabili behar helburu politikoen alde, edo politikoki aurkarien kontra egite-

«Egindako lanak jarraipena behar du euskarak aurrera egiteko. Galtzeko arriskuan egon daiteke hurrengo belaunaldiaren babesa ez badu»

ko. Zoritxarrez, hori gertatzen da euskararekin. Horrek askok euskara ikasi nahi ez izatea dakar. Hizkuntza aniztasuna oso polita da, eta gaztelarak laguntzarik gabe ere jarraituko du bizirik. Baina euskarak bizirik jarraitzea edo ez gure esku dago. Eta kalean lan egiten dugunok erakundeen esku utziko bagenu guztia, euskara galdu egingo litzateke, edo beste erabilera bat edukiko luke, ez naturala. Guk nahi duguna honakoa da: euskara Arabako kaleetan erabiltzea, modu naturalean, euskara gure hizkuntza izatea. Gaztelarak ez du laguntza beharrik, euskarak bai. Eta laguntza txikiak ditu, laguntza mugatuak. Espero dut etorkizunean hori aldatzea.

EUSKARAREN ETXEAN HASI ETA EGUNA GAZTETXEAN AMAITU

Arabako gazte euskaltzaleak bilduko dira gaur Gasteizen egingo den “Arabarra, gaztea eta euskaltzalea. Bai, eta zer?” topaketan. Topaketaren helburua Arabako kuadrilla ezberdinetako gazte euskaltzaleak bildu eta kuadrilletan antolatzen dituzten euskararen aldeko ekimenen berri elkarri ematea da.

Oihaneder Euskararen Etxeak azaldu duenez, topaketari hasiera emateko herri bakoitzeko ordezkariak euren aurkezpenak egingo dituzte 10.00etatik aurrera. Bertaratutakoen urkezpenak bukatutakoan, mintzodromoak edo eztabaidarako mahai inguruak egingo dira esperientzia bakoitzaren puntu positiboak edota gabeziak zeintzuk diren aztertzeko. Amaitzeko, goizak emandakoaren balorazioa egingo dute. Tamalez, gaurko topaketan ez dute parte hartuko Añana eta Trebiñuko gazte euskaltzaleak.

Eguerdirean, bazkaria izango da Oihaneder Euskararen Etxetik oso gertu den Gasteizko gaztetxean, eta, ondoren, 20.00ak arte, kontzertuak izango dira Orbanak, Odolkiak eta Tinko taldeen eskutik.

Topaketak antolatzen dituztenek sare bat egin nahi dute Arabako gazte euskaltzaleak batzeko. Denok batera lan eginez euskarak aurrera egin dezan Arabako zortzi kuadrilletan.



IKUSMIRA

HOTZAREN EDERRA EPELERAKO AUKERA DAGOENEAN




Izoztuta geratu da usoa ur gainean ibiltzeko gai dela ikusi duenean. Jelatuta dago putzua eta hotzak pausajea aldarazi dio.

Izoztuta geratu da hostoa uraren azpian dantzan zebilela ertza azalera agertu nahi izan duenean. Gauean hormatu egin du eta errekek ez dio zirrikiturik baimendu. Urak badiu aurpegi ugari, eta horietako bat da izotza, termometroak "0" esaten duenean agertzen dena. Izotzak, baina, badiu beste hamaika aurpegi. Hamabi zehatz esaten hasita. Izotzak badiu agertzeko hamabi modu desberdin. Hori diote zientzialariek. Gorritutako gure sudurrek eta gogortutako gure hatzek diote badiuela askoz gehiago, egunero ezustean harrapatzen gaituelako jelak gutxien espero dugun tokian eta egoeran. Sudur puntak freskatuta gabiltza, ideiak haizatuta. Sanoa ere bada hotza epelera noiz joan erabakitzen duenarentzat. Bestelakoa da epelaren aukerarik ez duenarentzat. Haren-tzat beti egiten du hotza.

amagoia.mujika@gaur8.info




A blue-toned photograph. On the left, a window with a white frame and multiple panes is partially covered by white, sheer curtains that are blowing in the wind. To the right of the window is a brick wall. On the brick wall, there are three small, square, recessed windows or decorative elements. The overall scene is dimly lit, with light coming from the window.

GAUR8

ireki gure leihoa



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



GAUR8

Baba falafela alioliarekin

OSAGAIK, FALAFELARENTZAT

Babak
Tipula
Berakatza
Espezieak
Oliba olio
Añanako gatz
Piperbeltza

PRESTAKETA

Hasteko babak zuritu eta irabiagailua-
ren edalontzian erreserbatuko ditugu,
berakatza (nahi adina) zurituta eta txi-
kituta gehituz.

Tipula gorri erdia julianan moztu eta
edalontzira bota. Nahi ditugun espe-
ziak aukeratu; gure kasuan, currya era-
biliko dugu.

Gatza gehitu, oliba olio birjina bota
(guk Arabako Arroniz olio aukeratu
dugu, falafelari ematen dion zapore
interesgarri eta freskoagatik).

Behin osagaiak edalontzian ditugu-
la, irabiagailuarekin xehatuko dugu
pasta lodi bat lortu arte. Oso fina gera-
tuz gero, ogi txigortu apur bat gehitu
dezakegu behar dugun loditasuna izan
arte. Erreserbatu.

Lapiko txiki batean ekilore olio
berotzen jarri. Errezetaren atal tekni-
koena orain dator: bi koilara txikiz
lagunduta, «quenelle»-ak egingo ditu-
gu gure falafelari forma obalatu polit
bat emanez. Ondoren, olio berotan fri-
jitu eta kolore apur bat hartzen dute-
nean sukaldeko paperarekin estalitako
plater batera pasatu olio ondo xuka-
tzeko. Prest!

Aurkezteko, txikoria gorri edo beste
hostodun barazkiren bat plateraren
oinarrian jarri, kipula erregosi apur bat
gehitu eta falafelak bere gainean utzi.
Amaitzeko, alioli saltsa zorrotada bat
bota (berakatzarekin egindako antze-
rako beste saltsaren bat ere erabil dai-
teke). Toke fresko batekin apaintzeko,
loretxo jangarriak erabil ditzakegu; guk
babaren loreak hartuko ditugu.

Lekaleak, hazietatik hasi

Txitxirioak, dilistak, indaba, babak... Haziak denak. Lekaleak fruitu aledun eta lehorrak dira. Hala, lekadunen familiako hazi lehorrak eskuratzeko helburuz ereiten diren barietateak dira. Mediterranear dietaren funtsezko osagaia dira hazi hauek, sarritan kontziente izan gabe kontsumitzen ditugun nutriente kapsulak, gure errezetak hobetzeaz gain hainbat onura ekartzen dizkigutenak.

Lekaleak oso garrantzitsuak dira ikuspegi nutrizional batetik. Dilistak, lekak, ilarrak edota garbantzak dieta osasungarri bateko ezinbesteko elementuak dira. Izan ere, nutriente ugari izateaz gain, proteina iturri garrantzitsuenetarikoa ere badira lekaleak.

Bestalde, eta mito asko apurtzeko, askok pentsatzen dutenaren kontra, lekaleek ez dute apenas koiperik. Horrenbestez, gizen-tasunari zein diabetesa bezalako gaixotasun kronikoei aurre egiteko oso baliaga-

rriak dira. Lekaleen zuntz disolbagarriak, gainera, koloneko heste-flora onera ekartzen laguntzen du.

Lekaleak eskura izan beharko genituzke beti. Animalia jatorriko proteinen kontsumoa murrizteko alternatiba ezin hobea dira: zerealekin eta barazkiekin era egokian konbinatuz gero maila biologiko altuko proteinak ematen dizkigute, gure organismoaren proteina beharra asez. Piramide nutrizionalaren oinarrian topatzen ditugu, asteen bi eta lau aldiz artean jatea gomendatzen delarik. Heldu zein gazteen-tzat, lekale errazio gordin bat 80 eta 100 gramo artekoa izango litzateke.

Honi guztiari gehitu behar zaio lekaleak nekazaritzarentzat ere oso labore onuragarriak direla. Lekadunen familiako landareek atmosferako nitrogenoa jaso eta lur-rean finkatzen dute, lurrazalaren emankortasuna indartuz. Horrenbestez, ezinbesteko laboreak dira lekadunak nekazari ekologikoen plangintzan, gizakiontzako elikagai paregabea emateaz gain lurra

bera ere elikatzen dutelako. Arrazoi guztiongatik, Nazio Batuek atzean utzi berri dugun 2016a Lekaleen Nazioarteko Urtea izendatu zuten. Goazen lekaleei merezi duten toki eskaintzera!

Seguruenik gehienok ezagutzen ditugu ehunka era desberdin lekaleak prestatzeko, ia denak koilararekin edo entsaladan jateko. Gaurkoan, baina, gauza berriak praktikatzera goaz, eta, hala, guk errezeta original eta gozo bat proposatu nahi dizuegu. Urte osoan zehar egin daiteke, edozein lekale erabilita, betiere sasoiko produktuei eta inguruan topa dezakegunari moldatuta.

Hona hemen gure proposamena: baba txiki falafela alioliarekin. Falafela gastronomia arabiarraren errezetarik ezagunetakoa da, batik bat txitxirioarekin egindakoa. Ohikoena da mokadutxo bezala aurkeztea, pita ogiarekin lagunduta. Guk, aldiz, beste era bat proposatuko dizuegu...

Ortutik Ahora Elkarte



Brenan Duarte, «Rostrografia I» lana atzean duela. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

infraganti BRENNAN DUARTE

Diziplina anitzeko artista da Brenan Duarte gasteiztarra, eta hainbat materialekin esperimentatzearen zalea. Artea egoera puruan erakusteko xedea du, helburu horrek hamaika muga dituela ondo asko dakien arren. Ironia tresna nagusi duela, publikoaren erreakzioa bilatzen du, inor hotz gera ez dadin.

Batzuetan “Brenan Duarte, argazkilaria” irakurri izan dugu hedabidearen batean. Argazkigintzan, ordea, autodidakta samarra dela dio, «argazkilari batekin solasean hasten banaiz, mila buelta eman-

go dizkit». Konposizioaz, argiaz, enkoadraketaz «zerbait» badaki, argazki on bat egiteko beharrezkoak diren oinarritzko gauzak, baina ez omen da tresna hori ondo ezagututa gara daitezkeen tekniken jabe. Egiaz, ez du bere burua ez argazkilaritzat ez beste diziplina zehatzetako egileztat

ere jotzen. Argazkigintza bezala, pintura edo beste zenbait diziplina baliatzen ditu, istorio jakin bat kontatzeko aukeratzen dituen tresnen arabera. Bere bideoak edo arte instalazioen bat musika elektroakustikoarekin lagundu izan ditu, bere konposizioak baliatuta, nahiz bere konposizioez hitz egiteak nolabaiteko lotsa ematen diola dioen. Horregatik esaten diote, baita berak onartu ere, diziplina anitzeko artista dela. Haren obra eklektikoa omen da; edonola ere, bere erakusketa bat ikusi ondoren esan izan diote «oso desberdina» zela, baina berea dela nabari dela.

Molde errealistako erakusketak egin izan ditu, baita handik zenbait urtetara bideo lan ezin abstraktuago eta esperimental bat ere. Baina, artista gasteiztarrrak dioenez, badira bere lanen arteko konexioak, asko «norberak ikusten ez dituenak, baina kanpotik sumatzen direnak». Ez omen du gustuko inolako modari lotuta egotea, ezta iturri finko batetik edatea ere, eta erreferentziak izatea ere saihesten ahalegintzen omen da, modu naturalean erreferentziak denok ditugula onartuta ere. Horrela ulertzen du berak artea, eta horregatik omen da artea desberdina, norberak barrutik ateratzen zaiona egiteko aukera ematen duelako. Ez luke galeria batentzat lan egingo, «hala egiten dutenenganako errespetu osoa erakutsita, jakina», diosku bere estudioan, solas patxadatsu baina etengabean.

Gaztetatik datorkio artearekiko harremana. Gainera, bere aita marraztu eta margotzen zuen eta seme-alabak zirikatu egiten zituen haien gaitasunak garatzeko. Baina, aita gisa, haien ogia zuen kezka nagusi. Musikari «zapuztua» dela dioen arren, Musika ikasketak egin zituen akademia batean soinuak jotzen hasita, berak nahi zuen tresna ez bazen ere; ondoren pianoa eta klarinetea jotzen ikasiko zuen, baina berak musikari profesionala izateko ikasi nahi zuen. Etxean, ordea, «bizitzeko» ikasi behar zuela esan zioten, eta, marrazkilari ona zenez, Delineazioa ikasi behar zuela, bide batez aitaren

enpresatxoan lan egin zezan. Hartara, marrazketa teknika ikasi zuen, baina musikaren eta arteen harrak bere horretan iraun zion. Izan ere, ikasketak amaitu baino lehen sormen lanak egin ohi zituen, eta ondoren lana eta Arte eta Lanbideen Eskolako ikasketak bateragarri egingo zituen. Ia diziplina guztiak ikasi zituen Arte Eskolan: Marrazkia eta Pintura, Grabatua, Eskultura edo Ikus-entzunezkoak. Jende askok Brenan hango irakaslea zela uste omen zuen, urtero-urtero bertan ikusita.

Dioenez, sarri pentsatzen du ez ote dagoen jende asko Arte Ederak zer egin jakin ezean egiten duena. Ba omen dago aukera hori izan ez duen beste jende asko, sinisten duen horretan gauzak egiten urte piloa daramana, eta horientzat penagarria omen da hori ikustea. Gauza bertsua gertatzen omen da arteari ematen zaizkion bekekin. «Ondo daude, jakina, baina desorekatuak iruditzen zaizkit. Arte Ederren fakultatetik ateratzen diren gazteek sostengua behar dute, bai, baina 20 urteko ibilbidea duen eta balio duela erakutsi duen artistak ere bai», dio, eta instituzioek arlo horretan huts nabarmena dutela. Ez da diruaz ari, baizik eta, esate baterako, museo batek tokiko artisten jarraipena egiteaz, museo batek edo arte zentro batek tokiko artisten lanak kanpoan erakustez. «Artiumek, kasu, truke lan horretarako gaitasuna du. Kanpotik obrak ekartzea ondo dago, baina bertako produkzioarekiko arreta ere, ez hainbeste diru aldetik, beharrezkoa da».

Kolektibo artistikoa konplexua dela dio, eta hain zuzen kolektibo gisa agertzeko zailtasunak dituela. Bakarrik lan egiten duen jendea da, eta kudeaketaren arloan ez omen dira oso onak; horregatik uste du sindikatu moduko bat, elkarte bat, beharko luketela, beren arazo burokratikoak kudeatzeko, halako linbo batean daudela uste baitu. Bera autonomo gisa alta ematera joan zenean, arteen atalean denak ziren torea-tzaileak, banderilleroak, kopla kantariak... Argazkilari epigrafe-rik ere ez omen zegoen, eta atal horretatik kanpoko bat hautatu



Brenan Duarte, Javier Hernandez Landazabalek egin zion erretratuaren aurrean. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

retara koadroei zerien kafe usaina galdu zelako. Langabezia, ETAk nazioarteko egiaztatzaileen aurrean egin zuen lehen arma zigilatzea, Pablo Iglesias Podemos alderdiko liderra, Mariano Rajoy espainiar presidentea, Melillan Guardia Zibila immigranteen aurka oldartu zenekoa.. dira albisteetako batzuk.

Brenanek hamazazpi urteko ibilbidea egin du artearen munduan buru-belarri; hala ere, oraindik hasi ez den sentsazioa omen du. Haren motibazioa egoera puruko sorkuntza da. Hori du xedea, behinik behin, onartzen duenez, lana beti aldarteak, inguruko egoerak eta abarrek baldintzatuta dagoen arren.

Bestetik, kultur kudeatzailea ere bada. «Alderdi hori lan profesionalarena da», dio, «gure lan egoera den modukoa denez, eta oraingoz aldatzeko itxurarik ez duenez, sortzeko gaitasuna ez ezik kudeatzeko eta antolatzekoa ere badudala ikusita, biak nahastea pentsatu nuen». Erakusketak antolatzen ditu –oso gogokoa du poesia esperimentalak, eta berak ere egiten du–, edo liburuak argitaratzen ditu: «Ez naiz literatura editorea, baina katigatzen nauen proiekturen bat edo arte katalogoren bat badago, gustura egiten dut», baina beste artista batzuen ikus-entzunezko lanak ekoitzi ere, hala nola “Argi eta garbi”, Juan Arrosagaray iruindarraren lana.

Brenan IMVG Gasteizko mural-ibilbidearen fundatzailea da, Veronica Werckmeisterrekin batera. Horma-irudien tailer bat eginez hasi ziren eta egun Alde Zaharreko eta hiri osoko hainbat fatxadatan horma-irudi ikusgarriak daude. Lankidetza eta herritarren parte hartzea oinarri. Herri kulturaren adibide eta arlo pribatuaren aurrean eremu publikoaren garrantzia nabarmendu nahi duena. Artistena, profesionalak zein ez, eta edozein herritarrena. Herritarren arteko kohesio tresna izan daitekeena, Brenanek bere jardunean ikusi duen bezala.

Brenan Duarte, artea egoera puruan erakustea helburu, inor axolagabe uzten ez duen diziplina anitzeko artista abegitsua. •

Xabier Izaga Gonzalez

zuen: “Beste kultur industria batzuk”. Esan nahi du lan profilik ere ez dutela. Estatu frantsesean, esate baterako, eta Brenanek ondo ezagutzen du, bertan zenbait erakusketa egin baititu, badago artista sindikatu moduko bat, badira artistak sustengatzeko plataformak, eta haien soldataren, lan baldintzen eta aseguruaren gaineko informazio bulegoak... «Sorkuntza ondasun bat gehiago dela aintzat hartzeko modua da hori».

Bere obrak ez omen dira etxeko egongelan jartzeko modukoak, ez dira arte apaingarria, nahiz berehala dioden ez dagoela arte apaingarriaren aurka; aitzitik, existitu egin behar duela, musika mota desberdinek bezala. Bururatzeko zaizkion ideiek inguru soziopolitikoarekin zerikusia dute, arteak, berak ulertzen duen moduan, kontzientziak astintzeko balio behar baitu, giza miserian atzamarra sartzeko, kritika egiteko. Brenanek publikoaren erreakzioa eragitea bilatzen du, hura hotz ez geratzea. Horretarako ironia du tresna nagusi. Umoreak erraztu egiten omen du gai hainbat gai mahai gainean jartzea,

hainbat gauza zail modu naturalean tratatzea.

Esandakoaren adibide garbia da Artiumeneko bilduma batean dagoen “Hamar Aginduak” lana, hain zuzen, erlijioa ez baita kritikarako gai samurra. Arbelezko hamar plantxa dira, haietan agindu horien gaineko ikuspegia erakusten duten fotolito gaineko argazkiak ageri direla. Lehenengo agindua n (“Maita ezazu Jainkoa gauza guztien gainetik”) jokoan ari diren zenbait futbolari profesionalen hantak ageri dira. Zortzigarrean (“Ez duzu gezurrezko testigantzarik egingo, ez gezurrik esango), berriz, Juan Pablo II.a aita santua ageri da, argazkirik argazki sudurra hazi eta hazi ari zaiola. Baten bat muturtu egin omen zitzaion, aita santu harenganako

Bururatzeko zaizkion ideiek inguru soziopolitikoarekin zerikusia dute, arteak, berak ulertzen duen moduan, kontzientziak astintzeko balio behar baitu

Brenanen motibazioa egoera puruko sorkuntza da. Hori du xedea, behinik behin, onartzen duenez, lana beti aldarteak, inguruko egoerak eta abarrek baldintzatuta dagoen arren

irain gisa ulertuta. Brenanek dioenez, Eliza katolikoaren kontraesanen kritika baino ez zen, haren ordezkari nagusiaren bidez, eta ez Karol Wojtyłaren aurkako ziria.

Teknikari dagokionez, materialekin esperimentatzea ezinbestekoa duela dio, baita arterako eginak ez diren gauzekin ere, eta makillaje kaxa bat seinalatu du. Horretaz diharduela, “Jus de chaussettes” bildumatxoko ale gehienak ateratu ditu. Joan den urtean, lehenik Gasteizko Warhol tabernan eta gero Bilboko Nuevo Portu Berrian ikusgai egon zen bilduma, bideo lan batez lagunduta. Hamarretik gora koadroetan gaurkotasun albiste bana islatu zuen, kafea akuarela balitz bezala erabilita. Bernizatu ere egiten zituen koadroak, penaz, ho-



Arantza Diaz de Ilaraza
EHUko Informatika Fakultateko irakaslea

Hizkuntza prozesamenduaren teknikaz balia gaitezke

Interneten aurki ditzakegun dokumentuen kantitatea ikaragarria da, eta, gainera, esponentzialki handitzen da urtero. Hori dela-eta, gure eskura testu-informazio bolumen itzela dugu, eta hazten doa. Hala ere, testu-informazio hori erabiltzea ez da erraza; laguntza behar dugu, eta konputagailuek lagun diezagukete zeregin horretan. Gaur egun sistema informatikoez datuak erraz prozesatzen dituzte, baina testua prozesatzea ez da lan erraza. Testua prozesatzea esaten dugunean, funtsean, testua ulertzea adierazi nahi dugu.

Hizkuntza prozesamenduaren arloaren (*natural language processing*) azken helburua hizkuntza automatikoki ulertzea da. Horretarako, hizkuntzaren mailak automatikoki tratatu behar dira: morfologikoa, sintaktikoa, semantikoa eta pragmatikoa. Arlo horretako ikerketa 1930ean hasi zen. Garai hartako ikertzaileen lehen helburuak itzulpen automatikoarekin lotuta zeuden, baina urte gutxiren buletan konturatu ziren ezarritako helburu horiek ez zirela hain lorgarriak, eta 1960ko hamarkadan beste norabide bat hartu zuten. Gaur egun hizkuntzaren prozesamendua pil-pilean dagoen arloa da, konputagailuaren eta gizakiaren arteko edo gizakien arteko komunikazioaren garrantzia gero eta handiagoa baita.

Historikoki, hiru lan-paradigma identifikatu dira hizkuntzaren prozesamenduan: ezaguera linguistikoa edo erregeletan oinarritua, datuetan oinarritua eta hibridoa (bai ezagueran eta bai datuetan oinarritua). Azkeneko urteetan, datuetan oinarritutako paradigma da gehien erabiltzen dena, gero eta datu gehiago ditugulako, eta hori da paradigma horren oinarria: datuetatik ikastea; zenbat eta datu gehiago, orduan eta hobeto ikasiko du sistemak.

Jende askok ez daki teknologia hori zertan datzan, baina gure bizitzaren alderdi funtsezkoa bilakatu dela esan behar dugu. Egunero ditugu teknologia hori erabiltzen deneko adibideak, edo haren erabilerak gure zeregin askoren garapena erraztuko ligukeen kasuak.

Aipatutako adibide bat akats ortografikoak eta gramatikalak saihesteko erabil-

tzen ditugun zuzentzaileak ditugu. Gaur egun zuzentzaile ortografikoak, estilo zuzentzaileak edo gramatikalak erabiltzea oso arrunta da, edozein testu gure hizkuntzan edo ondo menperatzen ez dugun hizkuntza batean idatzi behar dugunean.

Itzulpen automatikoa, berriz, baliagarri gertatzen ari da beste hizkuntza batean idatzita dagoen testu baten ulermen orokorra lortzeko, eta zenbait hizkuntzaren artean lortzen diren emaitzak nahiko onak dira, batez ere domeinu espezifikoetan (meteorologia, arlo juridikoa, osasungintza...); ez dira, noski, perfektuak, baina lagundu laguntzen dute itzulpenean, postedizioa erraztuz eta produktibitatea hobetuz. Sistemok historikoki erregeletan oinarritutako paradigma jarraitu dute, baina badira urte batzuk datuetan oinarritutako teknikak gailendu direna, batez ere itzulgai diren hizkuntzetan idatzitako testu paralelo kopuru handiak eskuragarri direnetik.

Bestalde, hizkuntzaren prozesamenduko teknikak gero eta gehiago erabiltzen dira bilatzaileetan, galderen erantzun egokiagoak lortzeko. Gure galderari erantzuteko, bilatzaileek galderaren eta testuen arteko adostasuna aztertzen du-

te (zati komunak), eta gehien hurbiltzen diren dokumentuak itzultzen dituzte emaitza gisa. Antzekotasun hori detektatzeko, oso baliagarriak dira hizkuntzaren prozesamenduko teknika aurreratuak (semantikan oinarritutakoak).

Oraindik, baina, ez dira lortzen guk nahiko/beharko genituzkeen emaitzak. Galdera baten erantzunean, galderako hitzak agertzen diren dokumentuak ez ezik, hitz horiekin semantikoki erlazionatutakoak dauzkatenak ere eskuratu nahiko genituzke; adibidez, “neurtzeko tresnei” buruz jakin nahi baldin badugu, erantzun gisa “barometroak”, “termometroak”, “higrometroak” eta abar dauzkaten web orriak ere eskuratu nahiko genituzke.

Datozen urteetan teknologia honen baliagarritasuna gero eta nabarmenagoa izango da eguneroko beharretan. Konputagailuak gero eta hobeto dabilta itzulpen automatikoan, dokumentuen sailkapenean, bilaketetan eta baita aho-tsaren ezagutza eta hizketaren sintesia ere, baina oraindik ez dute hizkuntzaren esanahia ulertzen. Bitartean, baina, balia gaitezke lagungarriak izan daitezkeen aplikazioez. •

 Xuxen euskarazko zuzentzaile ortografiko eta gramatikaren webgunea.

[Xuxen.eus](#) [Xuxen 5](#) [Informazio orokorra](#) [Bertsioak](#) [FAQ](#) [Prensa-aretoa](#) [Kontaktua](#) [Sartu](#)

ik, idazten ari garela, **gorriz** azpimarratzen ditu gure akats ortografikoak: *zihur, xagu, akanpaleku, iharduera, konbidatu...* Eta horiek nola zuzendu proposatzen du.

Astebururako hainbat **iharduera** antolatu dituzte.

abc

berdez edo urdinez azpimarratzen ditu hitzak, zuzenak izan arren Euskaltzaindiak beste forma bat hobesten duen kasuetan, hala nola *bordatu, fondo, naituan* hitz horien ordez hobesten dituen ordainak proposatzen dizkigu.

Ainitz irakurtzen duzu?

abc

zenbait akats gramatikal ere berdez edo urdinez azpimarratu eta zuzentzeko proposamena egiten du: *gosea daukat, ikusiko gara...*

Bihar ikusiko gara.

abc

Office berrienetan (Office 2013 arte) erabiltzeko prest dago Xuxen 5. Beraz, gure ordenagailura deskargatzen badugu, aipatutako hizkuntza-zuzenketa eta -prozesatze bat idazten ari garenean, adibidez. Eta erabiltzailearen hiztegia osatzeko aukera ere izango dugu, Xuxen 5-ekin batera erabiltzeko.

in, sistema hauetan guztietan txertatzeko **pluginak** berritu ditugu, zuzenketa ortografiko eguneratuak egin ditzaten:

Office 11 liburutegia...

 elhuyar Komunikazio eta Teknologia

 ixa

Zuzentzaile ortografikoak eta estilo zuzentzaileak erabiltzea arrunta da gaur egun.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA

ORSON WELLES, EUSKALDUNEZ ETA EUSKAL HERRIAN

1955ean, BBC Erresuma Batuko irrati-telebista publikoak zenbait dokumental egiteko proposamena egin zion Orson Wellesi, baita hark onartu ere. Dokumental horietako bi Ipar Euskal Herrian egitekoak, "The Basque Countries" eta "La Pelote Basque" izenburua izango zutenak. Lael Tucker eta bere seme Chris Wertenbaker, Ziburun bizi zirenak, izan ziren Wellesen gidariak, eta Tucker, gainera, muntatzaile eta dokumentalen gidolarietako bat ere izan zen. Besteak beste, Sara, Donibane Lohizune, Ziburu, Donibane Garazi eta Etxalarren filmatu zituzten dokumentalok. Haietako azalpenetan, honakoa dio Wellesek: «Hemen bizi direnak ez dira frantsesak, ez espainolak, euskaldunak dira. Nolakoak dira euskaldunak?

Euskaldunak diren bezalakoak dira. Dakigun gauza ziur bakarra da zer ez den euskaldun bat. Ez dira ez mediterraneoak, ez alpetarrak, ez magyarrak, ez zeltak... Beste errepublika eta erresuma batzuk sortu eta erori izanak ez die euskaldunak direla ahantzarazi. Egun hizkuntza bitxi bat hitz egiten dute, adituek ezagutzen ez duten jatorrikoa». Argazkia 1955ekoa da, Donibane Lohizunen egina, eta Orson Welles eta Bixendaritz pilotaria ageri dira bertan. Egilea Jean Velez donibandarra da (1908-1983). 1936az geroztik, bere kamera-
ren bidez garai baten eta bizimodu baten lekuko izan zen. Euskal Herriko argazkilaritza dokumentalaren aitzindarietakoa izan zen.



JEAN VELEZ. DANIEL VELEZ FUNTSA

7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN OSTIRALEAN
ZURE KIOSKOAN SALGAI

100.
ZENBAKIA
MILA ESKER!



SAN PETERSBURGO

SALVADOR DA BAHIA • ITXINA • THAILANDIA • CHRISTIANIA

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

